

QEU

2,40 €

2009ko azaroa 200

juan vallejo & alberto zerain





lastairak
somierak
burkoak
ohe arropak



ensueños loiniz

madre vedruna 18 vitoria-gasteiz
945 13 38 38

IRUÑA-VELEIAKO AUZIA
ARGITZEAREN ALDEKO
MANIFESTUAREKIN ADOS
BAZAUDE, SINATU

<http://www.sos-veleia.org>
WEBGUNEAN.

AZAROAREN 19RA ARTE

IRUÑA-VELEIAKO
AUZIA
ARGITZEAREN
ALDEKO
MANIFESTUA



geu aldizkaria.
urteko kuota: 20.- euro.

sumarioa 200

geupertsonaia

juan vallejo & alberto zerain mendizaleak . . . 6-11

geugaia

añanako koadrilako ondare arkitektonikoa . . . 14-18

bat3tan

mendiak aske23-25

arte txokoa

algara dantza taldea27-29

arte txokoa

humberto gutierrez imitatzaila30-31

bat2tan

euskara mirandan32-33

euskara&historia

aguraingo eskriturak. 157634-35

beste:

euskaltasunean12

gaztezulo20

zutabea: karmele jaio30

agenda, kaletik, proposamenak,
araba bixotzian, historia zutabea,
errezeta eta umorea

6-11



14-18



27-29



32-33



GEU

GEU aldizkaria | sorrera-data: 1992 | helbidea: Pedro Asua kalea, 2 - 3.a. 01008 Gasteiz | tfnoa. eta faxa: 945 22 21 53 | geugaste@grn.es | geu@geugasteiz.com | www.geugasteiz.com | zuzendaria: estitxu breñas glz. de zarate | kazetariak: edurne begiristain, ainhoa arriaga, narea cuesta eta ane pedruzo | argazkiak: edorta sanz | bestelako irudiak-bilaketa: estitxu breñas glz. de zarate, david alvez | testuen zuzenketa-orrazketa-osaketak: estitxu breñas glz. de zarate | itzulpenak: geu aldizkaria eta aztiri | maketa: dalvez | umorea: iñigo sarasola | araba bixotzian: josean morlesin | kolaboratzaileak ale honetan: karmele jaio, kike fdz de pinedo, maider lacalle, erlantz urtasun, maider garcia de bikuña (emaize sexologia zentroa), andoni rodriguez (diocesanak-mendizorrotzako ostalaritza eskola) eta gaztezulo. | publizitatea: idoia breñas, geu aldizkaria | sustapen-harpidetza saila: geu aldizkaria | etiketak eta publizitate fk.: edurne begiristain, ebz | inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) | lg: VI-582/92 | issn: 1133-0988 | Frankeo Itundua 48/27 zenb. | aldizkari hau paper ekologikoaz egina dago | **GEU aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitako enrantzukizunik.**

Laguntzaileak:



www.geugasteiz.com

zeregin euskaraz [09azaroa]

GEU ELKARTEA

'AULKI HUTSA'

LA PETIT THÉÂTRE DE PAIN
ANDER LIPUSEK ZUZENDUTAKO ANTZEZLANA

AZAROAK 6 OSTIRALA 20:30
JESUS IBAÑEZ DE MATAUCO
ANTZOKIAN (HEGOALDE G.E.-AN)
SARRERAK 2/4 EURO

[GEU ELKARTEAK & GAUEKOAK PROGRAMAK
ANTOLATUTA]

GEU elkartearen bitartez izena ematen duzuen
lehen 25 bazkideentzat 2ha sarrera ditugu doan.

Eskaera: geuelkartea@gm.es helbide elektronikoa, zuen izen-abizenak + NA
zenbakia zehaztuta.

LA PETIT DE THEATRE DE PAIN Iparraldeko antzerki taldeak, Ander Lipusek zuzendutako
AULKI HUTSA antzezlana dakarkigu Gasteizko Hegoalde Gizarte etxeko antzokira.

Joseba Sarrionandia idazlearen testuetan oinarritutako antzezlana honek, erbestetik itzuli
ezin den gizon baten ametsak kontatzen ditu, zuzeneko musika, umore beltza eta poesia
lagun. Manex Fuchs baxenafarra da taula gaineko aktore bakarra, Battit Elisalderen
zuzeneko musikak girotuko duelarik antzokia.

Kalitatezko antzerki herrikoiaz gozatzeko gara
beraz, datorren ostiralean iluntzeko 20:30ean
Jesus Ibañez de Matauco antzokian.

GASTEIZKO IRAKURLE KLUBA

PHILIP ROTH, SUMINEZ, MEETOK 2009
AZAROAK 26 OSTEGUNA

JURGI KINTANA, URRE URDINAREN
LURRINA, PAMIELA 2009 + JEAN
ETXEPAREREN BURUXKAK (1910) ETA
BEREBILEZ (1931) LIBURUEN PASARTE
AUKERATU BATZUK

URTARRILAK 7 OSTEGUNA

20:00 HIKAAATENOAN

arduraduna: iban.zaldua@ehu.es
(iban zaldua)



GEUREKIN MENDIRA

AITZKORRI (1.528 M) & HARITZ ERRALDOIA
zalduekoko plataformatik / arratsalde erdira arte

AZAROAK 15 IGANDEA

9:00 LOVAINA PZn

arduraduna: xabi a 945266812

geurekinmendira@gmail.com



KULTUR ERROTA

KONTZERTUA: BELCEBLUES
AZAROAK 24 ASTEARTEA
20:30 PARRAL TABERNAN

G.E.A., 'GASTEIZKO EUSKARAREN AGENDA' DIGITALA JASO NAHI?
BIDALGUZU ZURE E-POSTA GEU@GEUGASTEIZ.COM HELBIDERA
ETA HILERO JASOKO DUZU.
GASTEIZKO EUSKARAZKO EKINTZEN BILDUMA DA G.E.A.
EZINBESTEKOA GASTEIZEN EUSKARAZ MUGITZEKO.

PARRILLADA 09

AZAROAK 7, HALA BEDI TABERNAN

+12:00etan txistorra eta broketa jana **+19:30etan KONTZERTUA:**

+12:00etatik 14:00etara ZUZENKO EMISIOA **THIS IS THE BASQUE COUNTRY**

+14:00etan BAZKARIA

hala bedi
IRAKURLE KLUBA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

ipuina

MARIZIPRIZTINEK EZ DU ZORIONEKO GALEPERRIK NAHI NUNILA eta MYRIAM

TXALAPARTA-09/URRIA 64 orr. / salneurria: 15 euro WWW.TXALAPARTA.COM WWW.GURE-LIBURUAK.COM



moderno, errealista, dibertigarria eta bihotz-altxagarria duzu honako ipuin hau. bizitza txikitik kontatutako eta sinetsi zituzten ipuinetatik urrun dagoela konturatu diren eta konturatzen ari diren hamaika emakumeen istorioa da mari ziprizekin. testuen ironia eta irudien indar eta adierazkortasuna emakumea eta gizarte-arrakasta lotzen dituzten estereotipoak hankaz gora jartzeko tresna ezin hobea dira.



MYRIAM CAMEROS-NUNILA LOPEZ

myriam carreros sierra: iruñeko 78ko san ferminen baitan jaio zen. ilustratzailea, artista plastikoa eta graffiti margolaria da. bere obrak horma-irudietan, marka ezberdinetako kamisetetan, erakusketetan edota prentsa grafikoan islatuta ikusi daitezke. komikiarekin eta arte-plastikoarekin lotutako sari anitz jaso ditu. ?nunila lopez salameo: jatorri aragoitarrek dituen arren, bartzelonan jaio zen 1966. urtean. yoel izeneko semea izatean kontakizunak asmatzeari ekin zion eta geroztik zaletasuna ogibide bihurtu du. estatua zeharkatu du kontu kontari eta munduari bira eman dion cd-a kaleratu du.

[HTTP://NUNILA-MYRIAM.BLOGSPOT.COM/](http://NUNILA-MYRIAM.BLOGSPOT.COM/)

DVD

ESKUEKIN MINTZA! ANGELA FERNANDEZ GARMILLA & JOSE MANUEL BELTRAN URCELAY

(lopez de gereñu ikastetxe publikoa. gasteiz) 09/ABUZTUA [eusko jaurlaritzaren argitalpen zerbitzu nagusia] WWW.EUSKADI.NET

argitalpen honetan informatika programa zenbait eskaintzen dira lengoian zein hizketan komunikazio arazoak dituzten ikasleei zuzenduak. entzumen ezgaitasunen edo bestelako garapen gaitzengatik sorturiko arazoan aurrean (hizkuntzan atzerapenak, adimen urrikoak, autismoak, etab.), programok bi xede nagusi hauek izan dituzte ikusmiran: adin goiztiarretan zeinuen irakaskuntza erraztea, batetik, eta komunikazio arloko laguntza tekniko areagotzaileen eta alternatiboen erabilera bultzatzea eta normalkuntza prozesua ahalbidetzea, bestetik.



beste

musika airean. karmele jaio

www.elkarlanean.com



zubia. mikel urdangarin

www.mikelurdangarin.com
www.baga-biga.com



bizitzari txistuka. betagarri

www.elkarlanean.com



GEU

laguntzailea:

GIZARTE EKINTZA

Obra Social

Caja Vital Vital Kutxa

ZORTZIMILEN

JUAN VALLEJO eta

JUAN VALLEJO (1970) ETA ALBERTO ZERAIN, ZERAS (1961) GASTEIZEN JAIOTAKO MENDIZALEAK DIRA BIAK. MUNDUARI BIRA EMAN DIOTE HAIEN TRESNERIAREKIN MENDI ALTUENAK ESKALATZEN -K2, ANNAPURNA ETA EVEREST, ESATERAKO- ETA AZTARNA SENDOA UTZI DUTE ALPINISMO MUNDUAN IDATZITAKO IBILBIDEAREKIN.



ARTEAN

ALBERTO ZERAIN gasteiztarrak

t. maider lacalle
a. artxibo

Biek azkar hartu zieten gustua kirolei, umeak besterik ez zirenean. “Zesta-puntan arituta nago eta urte askotan zehar mendizaletasuna eta pilotazaletasuna elkarrekin eramaten nituen. Lesio batengatik utzi behar izan nuen zesta-punta. Hala ere, mendia zen benetan erakartzen ninduen”, aitortu du Juan Vallejok. Euskaraz hitz egiten dute biek. Lotzen dituen beste elementu bat aipatzekotan, Zerain ere frontoietako hormen artean aritutakoa da: “Nire aita pilotaria izan zenez, arnastu bezain normala egin zitzaidan niri frontoietan sartzea”.

Zerainek argi utzi duen bezala, “nahi gabe sartu nintzen eskaladako giroan eta nahi gabe nire ondoan zebiltzan eskalatzaille zailduak nire gaitasunak neurtzeko ispilu bihurtu ziren”. Hau hamazazpi urte zituela gertatu zen. Vallejok, berriz, bere aitaren ibilbideari jarraitu zion eta azken hau eskalatzaillea zenez, Eginora eta Pirinioetara espedizioak egiten zituzten: “urte batzuk geroago guztiz murgilduta nengoen mundu horretan”.

Vallejok hasieratik mendia bidaiatzeko aitzakia gisa ikusi zuen eta Zerainek honek

ematen dion “askatasun sentipena” du gogokoen; “momentu zailei aurre egiteko ezin hobea da natur ingurune polit batean egotea, bai eskalatzen, korrika egiten edo paisaiari erreparatzen”.

Vallejo herrialde askotan egon da: “leku zoragarriak bisitatu ditut, zeinetara eskalatzeagatik izango ez balitz, joateko aukerarik izango ez nukeen”. ‘Al filo de lo imposible’ saioak ere leku askotara bidaiatzeko aukera eman dit; urrutiko bazter oso garestiak, oso jende gutxik ezagutzen dituenak. Zentzu horretan zorte handia dudala uste dut”.

Abentura eta leku basatiak oinarritzat dituen La 2-ek eskaintzen duen programan agertu zen Vallejo 1999an Annapurna I, 2001ean Everest eta 2004an K2-a igo zituenean. Zerainek ere agerraldia izan zuen programan 2001ean Lhotse izeneko mendian gora abiatu zenean. Zortzi mila metro baino gehiago dituzten mendi hauek igotzearen ideiak bati baino gehiagori jarriko lizkioke ileak puntan.

2008ko abuzturen 2an Zerain 8.611 metroko K2a bakarrik igotzen zegoela izu ederra harrapatu genuen hedabideei begira geundenok. Mendizalea gailurrera igota zegoelarik, mendian ezbehar bat suertatu



zen eta izotz-jauzi batek espedizio atzeritar bateko 9 mendizale hil zituen. Zerain ez zen tragediaz hurrengo egunera arte jabetu eta gertatu zena gertatu bazen ere, K2ko igoera du bere bizitzan egin duen "grinatsuen".

"Jendeak arriskutsua dela uste du baina ezagutza baduzu eta burua bere lekuan mantenduz gero, eskalatzea nahiko ekintza ziurra da", agerrarazi du Vallejok. Zerainen ustez intuizioa ezinbestekoa da mendian, "azkar

jokatu behar da momentu txarrenetatik ateratzeko eta argitasuna erabili beharra dago".

Horrelako egoeren aurrean, beldurra sentitzea normala izaten ote den galdetuta, "askotan sentitu dut dena bertan behera utzi eta etxera joateko nahia", aitortu du Vallejok. "Azken aldia orain dela hilabete inguru izan zen, elur-jauzi batek denda apurtu zigunean Hornbein Everest eskaladan, egindako azken espedizioan. Gau osoa pasa behar izan

genuen 30 zentimetroko erlaitz batetik zintzilik, eguna argitu arte".

"Momentu horietan denbora asko duzu pentsatzeko eta beldurra ere sentitzen duzu", jarraitu du. Zerainek hori pentsatu eta egin ere egin zuen Eigerra (Suitzan) igotzera zihoanean, bere ustez bizi izan duen espediziorik beldurgarriena: "maletak hartu eta ahalik eta azkarren hortik atera nintzen; txarrena zen etxeratzeko lehenago 2.000 metroko horma eskalatu behar izan nuela, behin hor sartuta ez baitago gailurretik behera doan beste biderik".

Nahiz eta Vallejok aitortu orain ez dituela hainbat eskalada konprometitu eta arrisku-tsu egiten, egoera hauei aurre egiteko beldurra kontrolatzeko ahalmena izateak beharrezkoa dirudi. Vallejok dioen bezala, "beldurra ausardia bezain beharrezkoa da gure bizitzan baina dosifikatu beharra dago, ezin da gauzen perspektiba beldurratik galdu". "Arrisku egoeretan beldurra kontrolatu beharra dago, bestela blokeatzera eramaten gaituelako eta baita erabaki zuzenak ez hartze- ra ere. Beste momentu batzuetan, jaramon egitea jakin behar dugu. Beldurrak zuhurrak izatera bultzatzen gaitu eta ezinbesteko elementua da bizirik jarraitzeko". Egoeren jabe izan behar garela adierazten du zentzu hone- tan ere Zerainek.

Egoera arriskutsuak direla edo ez direla, alpinistak hotzari aurre egin behar dio tenpe- ratura hain altuetan dagoenean eta "hori ez da batere atsegina", esan du Zerainek. Badaude, hala ere, Vallejoren hitzetan eskala- da egiteko alternatiba erosoagoak, kirol-eska- lada edo mendiko eskia esaterako. "Etxean nagoenean hauek praktikatu egiten ditut; ez da dena sufritzea izango".

Adina ere ez da oztopo gasteiztarrentzat, "adinaren kontua psikologikoa da gehien- bat", hausnartu du Zerainek, eta biak etorki- zun proiektuetan daude murgilduta, nahiz eta, arrazoi desberdinengatik, oraindik ezin zehaztu zeintzuk diren hauek. Vallejok, 39 urte dituela, 25 urte zituenean baino ahal-

men handiagoa duela sentitzen du: "alpinismoan esperientzia ahalmen fisikoa baino askoz garrantzitsuagoa da". "Buruak askotan giharrek baino gehiago bultzatu egiten zaitu eta ni gero eta hobe sentitzen naiz sasoiari dagokionez, eta baita egoera zailei aurre egiteko orduan ere. Burua dabilen bitartean, gorputzak jarraituko dio".

Biek ala biek egin ohi dute opor mendietan erlazionatuta dauden gunetan eta

Vallejoren ogibidea alpinismoan soilik oinarritzen den bitartean -"egun mendizaletasunetik soilik bizi ezezik, biziraun egiten dut; badakit ez dela betiko izango, baina ahal dudan heinean menditik biziko naiz"-, Zerain garraiolaria da eta ez du bere burua eskalatzailatzat bakarrik jotzen, "zorionez beste aktibitate asko egiten ditut".

Vallejok nahiz Zerainek maiteak *hobeto* agurtzen ikasi dute eta nahiago dute une

hauei garrantzi handiegirik ez eman. Biak libre sentitu egiten dira mendian: "mendian ez dago araurik eta nahi duzun eran goza zaitezke; nahi duzuna egin dezakezu", azaldu du Vallejok. Hala ere, ez lituzkete haien seme-alabak askatasun kontzeptu hau era berean bizitzera bultzatu nahi. Zerainek adierazi duenez, "alpinismoa praktikatu nahi badute pozik nengoke, baina zorionez edo tamalez nahiago dut beste kirol bat praktikatu dezaten momentuz".



- 1 Noiz hasi zinen eskalaten?
- 2 Zerk bultzatu zintuen horretara? Amets batek, txikitako bizipenek, familiaren espektatibek...Famili an eskalada tradiziozik al dago?
- 3 Zerk erakartzen zaitu eskaladatik edo mendizale izatetik?
- 4 Zein izan da zure eskaladarik grinatsuena?
- 5 Eta beldurgarriena?
- 6 Eskalatzaila-Mendizalea ez bazina, zer izango zinateke?
- 7 Nola ikasi zenuen zure mugak zeintzuk ziren jakiten?

JUAN VALLEJO:

“Mendian ez dago araurik eta nahi duzun eran disfrutatatu dezakezu”

- 1.- Txikitatik Eginora joaten nintzen nire gura-soek lagunduta.
- 2.- Nire aita eskalatzaila zen eta orduan sartu zitzaidan niri berdina egiteko gogoia. Pirinioetara ere joan ohi ginen eta urte batzuk geroago guztiz murgilduta nengoen mundu horretan.
- 3.-Mendian ez dago araurik eta nahi duzun eran disfrutatatu dezakezu; nahi duzuna egin dezakezu. Eskalatzek gainera azaltzeko zailak diren sentimenak sorrarazten ditu eta ezina da kirol hau praktikatzan ez duen norbaiti zehatz-mehatz zer den kontatzea.
- 4.-Azken urteotako eskaladak pasioz beterikoak izan dira, era zehatz batean eskalatzeko apustua egin dugu, estilo alpinoa, eta horrek eskalada guztiak berezi egiten ditu.
- 5.-Orain ez ditut hainbeste eskalada konprometitu eta arriskatuak egiten, nahiz eta dakidan azken hauek ere berezitasun bat ematen diotela kirolari.
- 6.-Beti gustatu egin zaizkit kirolak, beraz, alpinista ez banintz, beste edozein kirol praktikatuko nukeen, esaterako, eskia edo txirindularitza.
- 7.-Bakoitzaren mugen jabe izan beharra dago. Horrek non sartu zaitezkeen eta nora joan ezin zaitezkeen erakusten dizu. Ogibide honek zure lekuan jartzen zaituzten egoerei aurre egitera behartzen zaitu eta gehiago nahi izatea oso ondo dago, oinak lurrean dituzun bitartean.
- 8.-Espedizio bat egitera noala dakidanean gogo handia dut noski, bestela ez du zentzurik espedizio bat egitera joateak. Ez bazaude ziur egingo duzunaren inguruan, hobe da etxean geratzea; han goian zailtasunak daude zain eta espedizioak luzeak dira.
- 9.-Espedizio bateko unerik zailenak basean zaudenekoak dira; itxaroten besterik ez zaude eta ez dakizu gailurrera igotzeko aukera izango duzun. Askotan etxera bueltatu behar gara saiatu ezinik eta horrek frustrazio handia sorrarazten du. Dударik gabe sentsaziozik onena gailurra ikutzea da.
- 10.-Milaka proiektu ditut eskaladaren barnean eta kanpoan ere baina ordenean jarri behar dira eta egokiena aukeratu momentu bakoitzerako. Aurten asko atera naiz eta etxe inguruan eskalatzearekin, Pirinioetan, esaterako, konformatzen naiz. Datorren urtean ikusiko dugu; zeozter egingo dut”.





ALBERTO ZERAIN:

“Momentu zailei aurre egiteko ezin hobea da natur ingurune polit batetan egotea”

- 1.-Hamazazpi urterekin.
- 2.-Hasieran espeleologian hasi nintzen GEMI taldean eta urtebete geroago-edo lagun baten bitartez eskaladan murgildu nintzen.
- 3.-Niretzat mendiko irteerak eta eskaladak bizi-modu bat dira, askatasun sentipena lortzen dut mendian edozein aktibitate parktikatzen dudanean eta daramazun grina bideratzeko modu elegantea ere bada. Momentu zailei aurre egiteko ere ezin hobea da natur ingurune polit batean egotea, bai eskalatzen, korrika egiten edo paisaiari erreparatzen.
- 4.-Lehenengo eskaladak Andeetan liluragarriak ziren gehienak, baina pasa den urtean K2ko igoera egin nuen bakarrik eta hori izan da agian grinatsuen.
- 5.-Eigerko Iparraldea, K2ko Tom Cesen-Euskaldunen bidea edo Andeetan Paragot bidea, Huascaran mendian. Beldurgarriena bizipen zailduengatik Eigerkoa da.

- 6.-Nik ez dut nire burua eskalatzailatzat bakarrik jotzen, nik zorionez beste aktibitate asko egiten ditut.
- 7.-Hori ez da inoiz ikasten; mendian beti daude egoera ezberdinak. Horretarako intuizio asko eduki behar da, batez ere kinka larriren batetik onik ateratzeko. Azkar jokatu behar da momentu txarrenetatik ateratzeko eta argitasuna erabili beharra dago.
- 8.-Erronkaren arabera. K2a bakarrik eskalatzeari bururatu zitzaidanean honako sentimenduen nahasketa sentitu nuen: gogoia, adrenalina, beldurra...
- 9.-Une zailak edozein lekutan daude; mendia zein gizakia, oso aldakorak dira biak. Politena lagunekin helburua lortzea da.
- 10.-Anbizioa badut oraindik eta ziur nago laster erronka polit baten aurrean egongo naizela. Bizitzan pertsona bezala hobea izan nahi dut, eta baita solidarioagoa ere ●

- 8 Zer da hurrengo egunean espedizio batera zoazela sentitzen duzuna? Beldurra, gogoia, adrenalina, zorientasuna,... dena?
- 9 Zein da mendian gora zoazenean unerik zailena? Eta politena?
- 10 Anbiziorik handiena eskalada munduan? Eta bizitzan?

euskaltasunean

GASTEIZEN JAI OA, EDU MURUAN (ZIGOITIA) BIZI DA GAUR EGUN.
40 URTE, SOINU TEKNIKARIA.

“Lehen euskara militantzia bezala hartzen genuen; egun nahiz eta gehiagok jakin ez da behar beste hitz egiten”



t. ane pedruzo a. edorta sanz

Betidanik gogoko izan ditu herriak eta dagoeneko ohitu da bertako bizimodura eta ez luke aldatuko. Mendizabalan irudi eta soinua ikasi, hainbat irratitan aritu eta azkenik Radio Vitoria aukeratu zuen lantoki. Aurretik baina, denetarik egin du, hala nola, zerbitzari, igeltsero, errolda agente eta suhiltzaile lanak ere burutu izan ditu. Institutuan eman zituen

euskarazko lehen zertzeladak eta ordutik bere egunerokotasunean euskaraz bizitzen saiatzen da. Naturarekin harremanetan egotea maite du eta ahal duen guztietan mendira joan ohi da. Irratian denbora urrea dela diote eta Eduk ez du nahiko lukeen beste. Halere, tartetxo bat eskaini digu. Soinua argi eta garbi helarazten trebea da, ikus dezagun nola moldatzen garen gu bere hitzak behar bezala barreiatzeko! Airean!

Duzun biziorik handiena? Txorizoa jatea, pila gustatzen zait! Nahiz eta ondo bazkaldu askotan txorizoa jaten dut postrearen ondoren.

Bertuterik? Pazientzia handia dut baina batzuetan galtzen dut, e?

Zure lanean pazientzia ezinbestekoa al da? Bai batzuetan bai, segun zein pertsonarekin.

Akatsik? Familiarekin ez dut behar eta nahiko nukeen beste denbora igarotzen.

Zer eskatzen diozu bizitzari? Aurrera joatea eta senideekin solasaldi gehiago ahalbidetzea.

Zerk ateratzen zaitu zure onetik? Puntualtasun faltak, izugarri! Ez dut puntuala ez izatea batere gustuko eta kritikoa naiz garaiz iristen ez direnekin.

GEU aldizkaria eta elkartearen berririk?

Noiztik? Euskaltegian ikasten nabilela eza-gutu nuen. Gogoratzen dut garai hartan Estitxu Breñas, GEU aldizkariako zuzendaria irakasle lanetan zebilela euskaltegian...

Egunkari bat? Bat... bi? Berria eta Gara irakurtzen ditut normalean.

Telebista saio bat? Ez dut ia ikusten.

Irratsaio bat? Lanean asko entzuten ditut baino aditu bat ere ez, bestela zoraturako nintzateke...

Beldurrik? Berezirik ez...agian burua galtzea...

Oporrak non eta zertarako? Alabak ditugunetik kanpin batera joaten gara. Hondartza edo mendia dugu aukeran, beti naturarekin lotutako tokiak.

Nora ez zinateke joango? Ez dakit... Momentuz EEBBetara, ez dit ezer esaten.

Zoratu zaituen toki bat? Bolivia. Duela hamar bat urte joan nintzen, denetarik du, jendea, paisaia... eta neska-laguna ere bertakoa dut.

Gasteizko txokorik politena? Aihotz plaza. Harriz eta zurez inguratutako baserri batean bizi naiz... Egunean zehar ez dago jende askorik eta jendea dagoenean nire gus-tuko ekitaldiak antolatzen direlako da.

Eguna al gaua? Gaua... Eguna lanarekin lotzen dut. Gaua zuretzat da, askoz pertsona-lagoa da.

Gasteizko gaua non? Normalean alde zaharrean, irten nintzen azkenengo gauean Gorbea kaleko pintxo-potean ibili banintzen ere!

Liburu bat? Egia esan, oso liburu gutxi irakurtzen dut. Gaur egun Edmundo Paz boliviarrak idazlearen 'Río fugitivo' irakurtzen nabil. 80. hamarkadako Bolivia du testuinguru.

Film bat? Zergatik? Normalean alabekin

joan ohi naiz zinemara. Ikusi dudaz azken filma 'Up' izan da. Pozik atera nintzen, bes-telako baloreak transmititzen dituela iruditu zitzaidan.

Edari bat? Navaridaseko urteko ardo beltza.

Janari bat? Denboraldi honetan onddo nahaskia. Onddo bila ibili naiz azkenaldian!

Kolore bat? Urdina. Jendeak berdea itxaropenaren kolorea dela esaten badu ere, nire ustez urdina da, mugarik gabeko tokiekin elkarlotzen baitut, itsasoa, zerua...

Musika talde bat? Gatibu.

Kirol bat? Mendi irteerak edo txirindulari-tza.

Zer da Gasteizek duen onena? Denok elkar ezagutzen dugula, nahiz eta galtzen ari den jendea auzo berrietatik sakabanatzen hasi delako. Oraindik ere baina, alde zaharre-ra noanean aspaldiko jendea ikusten dut. Neurri batean herri txiki baten mamia mantentzen du Gasteizek.

Txarrena? Obrak, dena hankaz gora dago. Mugikortasuna hobetzeko beharra ulertzen

dut baina herrietan bizi garenontzat momentuz ez dago ezer, nahitaez erabili behar dugu kotxea, ez dugu aparkalekurik...

Euskaraz bizi daiteke Gasteizen? Nire ustez bai, gero eta gehiago... Lehen euskaraz egiteko toki konkretuetan egon behar zinen. Gaur egun jendeak badaki euskaraz, hitz egin nahi izatekotan beraz erraz dute. Dena den, lehen euskara militantzia bezala hartzen genuen eta gaur egun nahiz eta gehiagok jakin ez da behar beste hitz egiten, erosotasun kontu bat da.

Amets bat? Lotan amesten ditudan ametsak ez ditut gogoratzen... Askatasunean bizitzea, eskubide guztiak betetzea, ez bakar batzuk.

Amesgaizto bat? Ez zait ezer bururatzen... Oso sinplea naiz!! Kar-kar!

Iragana, gaur eguna ala etorkizuna? Etorkizunari begira egon behar dugu, gaur eguna bizitzen eta iragana ahaztu gabe.

Zer eskatzen du herriak? Ez dakit eskatzen duen edo ez, baina elkarlan eta elkartasun gehiago beharko luke ●

BETAURREKO GRADUATUAK

77€

KRISTALAK BARNE

MENDIA OPTIKA

DESDE 1856 AZ GERO

MULTI OPTICAS

Andre Maria Plaza t. 945 23 24 48

Olagibel, 33 t. 945 25 40 84


GASTEIZ



geugaia asunean

VICTORINO PALACIOS VITU ETA JOSE RODRIGUEZ

'AÑANAKO KOADRILAKO ONDARE AR



DATUZ DATU

- 2 fase liburu bakoitzaren ekoizpenerako: lehena, landa lana, datu-basearen azterketa tekniko eta historiko-dokumentala eta osaketa, argazkiak, bulego lana...; bigarrena, erredakzio eta ekoizpen lanak.
- Añanako Koadrilako liburuaren ekoizpenerako, 2 urte eman dituzte lehen fasean; eta 8 hilabete bigarrenean.
- Aiaraldeko Koadrilako liburuan, urtebete lehen fasean; 6 hilabete bigarrenean.
- Victorino Palacios Mendoza: Teknikaria Ondare Arkitektonikoan.
- Jose Rodriguez Fernandez: Arkeologoa.

KITEKTONIKOA. ELEMENTU TXIKIAK' LIBURUA


EZ DIRA MONUMENTU HANDIAK, EZTA OSO FAMATUAK ERE, BAINA BEREN TXIKITASUNEAN BEHARREZKOAK DIRA LEHENGO BIZIMODUA HOBETO ULERTZEKO ETA HERRIEN OROIMEN HISTORIKOA GORDE AHAL IZATEKO. LAN GARRANTZITSUA ETA MARDULA VICTORINO PALACIOS VITU-K ETA JOSE RODRIGUEZEK HARTU DUTENA, KOADRILA GUZTIEN ELEMENTU TXIKIAK BILTZEARENA, HAIN ZUZEN ERE. BOSGARREN ALEAN AÑANA ESKUALDEKO ARKITEKTURA "TXIKIA" JORRATU DUTE.


t. kike fdz. de pinedo

a. edorta sanz & egileak

Kultura eta gizartea kontzeptuak balio bertuko hartzen dute egileok.

Liburuan aurkezten den arkitektura, elementu txikiz osatutakoa, honela zehazten dute: herritara, landatarra, tradiziozkoa eta bertakoa. Aipatutako egile bikoteak 739 elementu "txiki" zenbatu ditu 700 kilometro karratuko eremua duen eta 7.500 biztanle dituen Añanan. Liburu mamitsu bezain interesgarri honetan bost atal hauek aurkituko ditugu:





ERLIJOTASUNAREN ADIERAZPEN ARKITEKONIKOAK

Nekazari munduan oso zabaldua zegoen ohituretako bat "soroen bedein-kapena" zen, eta hori egiteko hainbat gurutze banatzen ziren herri bakoitzeko jurisdikzio-mugetan. Herrien barruan ere ipintzen dira, batez ere elizen aurrean. Burdinazko gurutze bati zor dio izena Santa Cruz del Fierro izenak, lehen Santa Cruz de Soportilla deitua.

Zenbaitetan gertaera edo ekitaldi bat oroitarazteko eginak dira, gehiengotan indarkeriazko heriotza medio. Guztira 32 **gurutze** daude. Gutxi dira, ordea, aurkitzen diren **gurutzeagak**: Tuestakoa, elizaren aurrean; beste bi Berantevillan; eta beste bat Zanbranan, azken hirurak kanpoaldean.

Bi **kalbario** baino ez zaizkigu iritsi: Basquiñuelas-Arbigano bitartekoa eta Tuestakoa.

Umildegia eta **oroiztegiak**, batzuetan bidea adierazteko eraikiak, eta beste zenbaitetan promes edo debozio baten fruitu ziren. Lacorzanilla, Alcedo eta Zanbranaok dira gorde direnak.

Bi dira **estela diskoidalak**, Tortura eta Andagoiako kanposantuetan. Azken honek sei petaloko lorea dauka aurrealdean, eta atzealdean, berriz, gurutze greko bat.

Gutxi dira, bestalde, zutik dirauten herrien jurisdikzioaren ikurra ziren **erroiloak**, edo pertsonak zigortzeko erabiltzen ziren **urkabeak**; hauen artean ikusgarriak Gesaltza Añanakoa edo Villanañekoa ditugu.

NEKAZARITZA ETA INDUSTRIA JARDUNEN ARKITEKTURA

Industria gutxi ezarri izanak aurreko garaietako ekonomia eta bizimoduaren aztarnak gordezten lagundu du. Industria-

aurreko erabilerarekin lotuta hainbat elementu nabarmentzen dira liburuan, hona hemen hauetako batzuk: 1750ekoa den Gibijoko **karobia** eta ondoko **otso-zuloa**, Barrongoarekin batera bisitatzea merezi dutenak; Zarate familiaren Paulgo **igeltsutegia**, garrantzi handikoa izan zena; dokumentaturiko 35 **teileria**; Quejoko **erlategi** harrigarria, bere zutikako egurrezko erlauntzekin. Badira ere 11 **ferratoki** eta 8 **eskorta**. Ia Araba osoan bezala, Añanan ere, baziren **mahastiak** ia XX. mendera arte; jarduera honen lekuko badira zenbait toponimo, Santa Cruz del Fierroko mahasti-txabola edo Ozioko ardandegia. Era bertsuan, ezustekoa da **elurtegiak** topatzea Tobillas, Ginean edo Gesaltzan, azken hau desagertuta badago ere.


Baina dena ez da izan lana edo erlijioa. Aisiak eta jokoak leku garrantzitsua izan dute landa-eremuan, eta duda barik egileek zenbatu dituzten 96 **bola-jokoek** erakusten digute oso errotua egon dela, 24 **pilotalekuren** kopurua aise gaindituz.

ITURRIAK, EDASKAK ETA IKUZTEGIK

Palaciosek eta Rodríguezek 214 iturri eta antzekoak inbentariatu dituzte lan honetan. Uste baino konplexuagoa da iturrien munduan, batez ere egitura aldetik. Zaharren artean batzuek harrizko estaldura eta poza-dera dute, Katadiano, Andagoia edo Caicedo-Sopeñan; herri honetatik gertu **Pinto** iturri zaharra dugu, erromatarren garaikoa izan daitekeena. Herrien egunerokotasunean garrantzi handikoak izan dira ikuztegiak, normalean edaska eta iturriarekin osatuak; adibide ederrak daude Estavillon, Sendadianon, Salcedo edo Axkoetan. Halaber, Subilla-Morillasko herritarrek XIX. mendearen erdialdean oraindik ura zuzenean Baias ibaitik hartzen zutela jakiteak harritu gaitu.

ERROTAK

85 publikoak dira, 41, aldiz, pribatuak. Azken hauetatik badira atzean jauntxo bat, familia aberatsen bat, eliza edo elkarte bat dutenak. Asko izan dira urteetan zehar erren-



VICTORINO PALACIOS MENDOZA / JOSÉ RODRIGUEZ FERNÁNDEZ

AÑANAKO KOADRILAKO ONDARE ARKITEKTONIKOA ELEMENTU TXIKIAK



PATRIMONIO ARQUITECTÓNICO
EN LA CUADRILLA
DE AÑANA
ELEMENTOS MENORES

AÑANAKO KOADRILAKO ONDARE ARKITEKTONIKOA. ELEMENTU TXIKIAK

VICTORINO PALACIOS MENDOZA &
JOSE RODRIGUEZ FERNANDEZ

“Liburu honen helburua, aurrekoen gisara, Añanako Koadrilako herritarrei euren arbasoek egunero eta hurbileko bizimodutik utzitako ondare aberatsa itzultzea da. Ordu, egun eta hilabete ugari eman dira udalerrri bakoitzaren paraje izugarriak bidaiatzen eta gozaten, eta batez ere herrietako bizilagunekin elkarrizketak eta solasaldiak izaten. Askoren esku dagoen espazio geografiko bat ezagutu ez ezik, bizi kalitatea hobetu nahian lanean ari diren pertsona batzuen bizipenak eta sentimenduak ezagutu ditugu, eta horietako asko kezkatuta agertu dira Eraikitako Ondarea azkarregi ari delako hondatzen. Hori dela eta, ondare horren eraikuntzan, erabileran, mantenuan eta babesean parte hartu duten pertsonentzat **aitortza eta omenaldia** izan nahi du liburu honek.”

tamenduaren figuraz baliatu direnak ere. Valpuestako Kartularioan 1603an agertzen da lehen aipamena. Bovedako errotarena hain juxtu. XIX. mendean makinaria berria




sartu ahala, asko handituko da irin-produkzioa, eta geroxeago, mendearen bukaeran eta XX. mendean hasieran, ur-indarra argindar bihurtzeko sekulako aurrerapausoa eman zen, errota batzuk argi-fabrika edo zentral elektriko bihurtuz. Osmo, Lacorzana edo Bergantzu kasu. Badira oso egoera onean iritsi diren errotak: Armiñon, Berantevilla, Andagoia, Aprikano, Artsua edo Sendadianokoak; eta badira desagertu edo egoera kaxkarrean daudenak: *Aspea* errota Trespenden. Erdipurdi dago, berriz, historia bitxia duen Villanañeko **burdino-lako** errota. 1771n dorretxeke Varonatarrek eraikia, zenbait auzi eta arazo gairiditu behar izan zuen. Gero, burdino-lak bere jarduerari utzi zionean, irin-errotak garrantzia hartu zuen harik eta orain dela 40 urte inguru bertan behera gelditu arte.

ZUBIAK

Badago ibaiak zeharkatzeko zubiak baino zaharragoa eta errazagoa den beste modu bat, **ibia** (*vado* erdaraz). Erabilpen honen lehen erreferentzia historikoak XVI. mendekoak dira, horrela badakigu aspalditik Zadorra zeharkatzeko *Çarabo* errotaren ondoran dagoen Billodako ibia erabiltzen zela, hainbat harri puskak salatzen duten legez. Dokumentazioak ere praktika bitxi bat erakusten digu, alegia, zubia eta ibia aldi berean eta elkarren ondoan baliatzekoa, zubia ahalik eta gutxien hondatzeko helburuarekin, noski (Armiñon...).

Bazegoen hirugarren sistema bat ertz batetik bestera pasatzeko, hots, sokaz tiratutako **gabarra**. Honela, 1878an Zubilarra edo Puentelarra-koek diru-bilketa egin zuten gabarra berri bat egiteko. Agian, ondoko harrizko zubitik merkantzia gutxiago pasatu behar izateko.

Zubiei dagokienez, 127 dira Añanan zenbatu direnak. Eta uste baino zailagoa omen da beren kronologia eta tipologia zehaztea.





Izan ere, gehien-gehienak etengabean sakoneko aldaketak ezagutu dituzte urte-en poderioz. Beraz, zubi batzuen berri Erdi Aroko agiritan ematen bazaigu ere, ezin gara fidatu, beren arkitekturaren eboluzioa eta tipologia konparatuaren azterketak argigarriagoak izango baitira. Beharbada adibide garbiena Trespondekoa da, seguru asko Arabako ezagunena. Lehen erreferentzia, zeharkakoa bada ere, 1025eko Donemiliagako Reja izeneko agirikoa da, *Transponte*, zubia- ren atzeko herria hain zuzen. 1574koa da beste hau: “*unas casas en el dicho lugar de Trespuentes, en frente de la puente de Iruña...*”. Kontua da oraintsu arte bibliografia guztiak erromatartzat hartu izan duela, harik eta 1996 urtean Azkaratek eta Palaciosek ‘Arabako zubiak’ liburuan, egitura zaharrenak XVI mendekoak zirela

argitu zuten arte. Edozelan ere, egurrezko zubiak izan dira harrizko arkuen zuzeneko aurrekariak, nahiz eta biak elkarrekin bizi ia XX. mendera arte. Bitxiak dira liburuan ikus daitezkeen obren aurretiazko baldintzak eta planoak. Zubi batzuek muga ere zehazten zuten, eta zenbaitzuetan *pontazgo* izeneko zerga ordaindu beharra zegoen. Bergondakoa, Armiñongoa, Billodakoa, Langraiz Okakoa, Aprikanokoa, Sendadianokoa eta *Marubai* Katadianokoa ikusgarriak izateaz gain, zaharrenetakotzat hartu izan dira; seguru asko XVI. mendekoak ●

AIARAKO KOADRILAKO ONDARE ARKITEKTONIKOA. ELEMENTU TXIKIAK

VICTORINO PALACIOS MENDOZA & JOSE RODRIGUEZ FERNANDEZ

“Azaroaren amaieran edo abenduaren hasieran argitaratzekoa da Arabako Ondare Arkitektonikoaren ‘Elementu Txikiak’ bildumako liburu berria. Aiara-ko Koadrilari buruzko liburua izango da. Lurralde honek duen zama historikoaren zati handi batek isla dauka “elementu txikietan” (nekazal munduko jendeak askotariko jardueren inguruan egindako

adierazpen arkitektonikoak dira, zeintzuk komunitatearen garapenean garrantzi handikoak diren: nekazaritza eta abeltzaintza, jolasak eta kirolak, erlijioa, bide azpiegiturak eta ur horniketakoak, industriaurrekoak, etab...). Espero dugu inbentario-katalogo berri hau gure arbasoek Eraikitako Ondarea hobeto ezagutzeko baliagarria izatea, eta egungo belaunaldientzat lagungarri izatea datozenei ondasun aberats hau helarazteko. Aurreko bost liburuak Zuia, Agurain, Kanpezu-Arabako Mendialdea, Guardia-Arabako Errioxa eta Añana koadrilen ingurukoak izan dira.”

VICTORINO PALACIOS MENDOZA / JOSE RODRIGUEZ FERNANDEZ

AIARAKO KOADRILAKO ONDARE ARKITEKTONIKOA ELEMENTU TXIKIAK



PATRIMONIO ARQUITECTONICO EN LA CUADRILLA DE AYALA
ELEMENTOS MENORES

OBRAK. ZENTZUZKOA AL DA GASTEIZKO KALEAK ALTXATZEA?

t./a. naroa cuesta

GALTZADA-HARRIEN AZPIAN HONDARTZA ZEGOELA ZIOTEN 1968AN PARISEN KALERA IRTEN ZIREN IKASLE ETA LANGILEEK. GUREAN, GASTEIZEN, ORAINDIK EZ DUTE HAREARIK AURKITU, BAINA BERE HORRETAN JARRAITZEN DUTE. HONDARTZA NONBAIT EZKUTATUA BALEGO BEZALA HAN ETA HEMEN KALEAK ALTXATZEN. E-PLANAREN ESKUTIK 40 MILIOI EURO LUZE HELDU DIRA GASTEIZA. MADRILGO GOBERNUAREN ESANETAN PLAN HONEK HELBURU BIKOITZA DAUKA: KALEAK ERABERRITZEA ETA LAN MERKATUA SUSTATZEA. JAKIN DEZAGUN, BERAZ, GASTEIZTARREK ZER DIOTEN PLAN HONEN INGURUAN.

• **Gasteizko kaleetan egiten ari diren lanak beharrezkoak direla esango zenuke?**

• **Zein da, zure ustez, E-Planaren helburua?**

• **Ba al dute lan hauek eraginik zure eguneroko bizitzan?**



Idoia Villasante, irakaslea

- Ezetz esango nuke. Kaleren bat konpontzerakoan etorkizunean egin beharreko lanetan pentsatu beharko lirateke, kale osoa bitan ez altxatzeko.
- Gobernuaren esanetan lan merkaturatzea, lanpostuak sortzea. Egia esan, ez dakit zein den benetako helburua. Nire ustez egiten ari diren lan batzuk ez dira beharrezkoak.
- Bai, handia. Duela bi aste gaez aritu ziren nire kalean mailu mekanikoarekin lanean, tranbia ez gelditzeko. Astebete lo egin gabe egon ginen.



Ruben Alonso, teknikoa

- Aurretik altxatutakoa berriro altxatzen ari dira. Gainera, lanak amaitzeko epeak luzeegiak direla uste dut. Esate baterako, Alde Zaharrean denbora gehiegi daramate berritze-lanetan.
- E-Plana lana emateko helburuarekin sortu zen, baina, nik uste, beharrezkoak ez diren obrak burutu dituztela. Hobe litzateke behar duenari zuzenean dirua ematea.
- Bai, erdialdean bizi naiz.



Caya Lopez de Letona, jubilatua

- 1) Ez, nire ustez ez da hain arriskutsua.
- 2) Mehatxu mediatikoa da batez ere, sendagaiak saltzeko eta jendea kontrolatua izateko aitzakia bat besterik ez.
- 3) Momentuz ez.

idazleen zutabea

ZEROTIK HASI

t. karmele jaino

Goizero zerotik hasten garela uste dugu askotan. Baina nahiz eta ohean biluzik esnatu, jantzita gaude, bizitzan gertatu zaigun guztiak janzten gaitu. Gu gara gu eta bizitzan pasatu zaigun guztia. Eta denak du zerikusia gure izateko moduan: anai, neba, arreba, edo ahizpa gazteago bati izandako jela-ziak; behin txikitari hondartzan galdu ginenean igarotako larritasunak; eskolako lagunekin izandako harremanak; tokatu zitzaigun andereño edo maisuak gurekin izan zuen tratuak; aukeratu genituen ikasketak; gure lehen lan esperientziak; gure lehen sexu harremanak; zoratzerraino maiteminduta utzi gintuen mutil edo neskek eta harengandik jaso genuen erantzunak... Denak janzten gaitu. Gurekin daude guztiak, eta gure izateko modua eraikitzen dute.



Gure jaiotza egunean ere bada iragan bat, gure gurasoena, gure familiarena, gure herriarena, gure izateko moduan zerikusia izango duena. Beraz, hor ere ez gara zerotik hasten.

Goizero zerotik hasten garela uste dugu askotan. Baina nahiz eta hainbat gauza iragana direla pentsatu eta iragana diren heinean desagertuta daudela, ez da egia. Iragana oraina da. Iragana presente dago gure egunerokoan. Txikitari ikasitako kanta baten antzera, hor daude geure buruan hainbat pentsamendu, esperientzia, ahaztuta uste ditugunak. Baina askotan nahikoa da kanta baten bi nota entzutea ahaztua uste genuen maitasun batek utzitako zauria gogoratzeko; askotan nahikoa da usain bat, gure haurtzaroko oroitzapen bat berreskuratzeko; askotan nahikoa da ahots bat entzutea, garai batean izan ginena gogoratzeko.

Etorkizuna heltzear dago. Eraikiko dugu, bai, edo leherrarazi. Eta orainak ere eskuetatik ihes egiten digu. Beraz, zerbait baldin bagara, iragana gara. Orain artekoaren emaitza ●



EMAKUME IRANEN. KONTRASTEAK.

TESTUA ETA ARGAZKIAK: JOKINE IRANBARRI

EMAKUME IRANDARREZ ARI GARELA, KOLORE BELTZA, BURUKO ZAPIA EDO CHADOR-A DATOZKIGU GOGORA. BAINA HEMEN ERE KOLORE-SORTA ANITZA DA; GAUR, BESTE INOIZ BAINO GEHIAGO, KONTRASTEZ JOSIRIKO HERRIALDEA BAITA IRAN. EMAKUME BAKOITZAK BERE BIDEZIDORRAK BILATU DITU ARAU HERTSIEI IHES EGIN ETA NORK BERE NORTASUNA EZAGUTZERA EMATEKO. BELTZEKO ANDRE ERLIJIOSOAK AMY WINEHOUSEN ITXURAKO NESKA GAZTE MODERNOEKIN GURUTZATZEN DIRA TEHERANEN, MENDI ALDEKO EMAKUME KURDOAK ETA QASQHAI EDO SASHAVAN NOMADAK. ORDENAGAILU ERAMANGARRIAK ETA LENTEJUELA OIHAL NAHIZ MORAL ILUNENEKIN NAHASTEN DIRA ORAIN IRANEN.



20

metroko altueran zintzilikaturik eman dituzte bi aste AHT Gelditu! Elkarlana koordinadorako kide batzuek. Laster dira hastekotan trenbidearen Ordizia-Legorreta tarteko lanak, eta Itsasondoko 120 urteko pagadi eder bat sunsituko dutela jakinik, zuhaitzetera igo ziren ekintzaileak protesta moduan. Portugaleten, Durangon eta Bilbon ere gisa honetako ekintzak egin dituzte, guztiak ere Zuhaitzei sustraietatik eutsiz, AHT-rik ez! lelopean.

%59,2

da, Espainiako Bankuaren arabera, 2009ko lehen seihilekoko lanpostuak desegin dituzten Espainiako Estatuko enpresen ehu-nekoa. Txosten berean Estatuko enpresen %58,2ak irabazi handiak izan dituztela jaso du. Ez dago puntako ekonomista izan beharrik ekuazioa askatzeko: enpresari askok langile gastuak murriztu dituzte irabaziei, irabazi handiei, eusteko. Batzuk dirua majo egiten jarraitzeko, besteak kale gorrian.



GARAGARDOA IZAR ARTEAN

Soyuz TMA-16 espaziontzi errusiarrak legamia eraman du ISS Nazioarteko Espazio Estaziora, grabitaterik gabeko lekuan produktuak zein bilakaera duen ikertzeko. Emaitza positibo-a balitz, zientzialariek ogia eta garagardoa espazioan egin ahal izateko teknologiak garatu nahi dituzte. Alkohol gutxidun garagardoa litzateke, astronauten osasunerako onuragarria. On egin!

SMS BAT 16,98 SEGUNDOTAN

LG Mobil Worldcup lehiaketak SMSak azkarren idazten dituen pertsona aurkitu nahi du, eta Leticia Alonso izeneko bilbotarrak mezua 16,98 segundotan idatzi eta Espainiako Estatuko kanporaketa irabazi du. 22 urteko gaztea AEBetara joango da, mundu mailako beste 16 finalistekin lehiatzera. Irabaziz gero, 100.000 dolarreko (68.500 €) saria eskuratuko du. Trebetasun errentagarria berea!



gaztezulo.com
Eduki berriak egunero

sexua·gaupasa·egun pasa·musika·sarezulo·hitzordua·zinema·ikasi bai, baina·mundua·fotografikoak·literatura·teilatupea·protagonistak·agenda·fotomaton·salerosketak·albiste bitxiak·etxeok·komikiak



★ IZARRA TABERNA - JATETXEA
BITORIANO - ZUIA (ARABA) • ☎ 945 430 073

Euskara, gure lurralde libre bakarra

araba@aralar.net • Izardui komandantea 7 behea • 945 154 220



Equerditan, asteleneetik ostiralera
**JANTOKI
BEGETARIANO**
SAN FRANCISCO XABIERKOAREN KANTOLA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL. - 945 27 68 33

ZURE HARATEGIAK



AIZPEOLEA
harategia
arraindegia
frutategia
okindegia

Jose Luis
GARMENDIA
Harategia-urdaitegia

Florida Azoka 2 eta 3 TI. 945 13 24 48

Andaluzia kalea 13 TI. 945 28 79 42
GASTEIZ

gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak



Obren egite
eta zuzentzea
ALTUNA Estudioa
www.estudioaltuna.com
"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa
esal@estudioaltuna.com
Florida kalea, 9 behea - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30



Jesus Guridi, 2
TI. 945 27 88 88 - 28 72 37
El Boulevard Merkatal Zentroa - TI.
945 068 888
01005 GASTEIZ



UZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA
**KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA**

HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ



· Euskaltegi Homologatua · Musika eskola
· Helduentzat · Dantza
· Ume eta gaztetxoentzat

Uruguai kalea, 9 - TI: 945 24 49 65
Abendaño kalea, 48 - TI: 945 22 34 33

Euskadik behar zaitu



Julian de Apraiz kalea, 1 TI. 945 213 390 - Faxe: 945 213 390
01012 GASTEIZ e-posta: errotadental@euskalnet.net



Errege atea, 9 · GASTEIZ
TI: 945 25 05 30 / 945 25 66 85



Madalena kalea, 2
TI: 945 13 27 20



Jantziak
San Antonio, 11 · TI. 945 23 39 90
H. Fournier, 15 · TI. 945 15 53 39



Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

MENDIAK ASKE

KOLDO ORTIZ DE GINEA, Mendiak Aske-ko kidea

“Ados gaude energia eolikoarekin, baina ezin da edozein tokitan jarri”

ENERGIA EOLIKOA BAI, BAINA EZ HORRELA LEOA HARTUTA LANEAN ARI DA ARABAKO MENDIAK ASKE PLATAFORMA. BENETAKO ENERGIA BERRIZTAGARRIA ETA BERDEA ALDARRIKATZEN DU ARABAKO ERRIBERAGOITIKO HAINBAT LAGUNEK SORTUTAKO TALDEAK, ETA MENDIETAN AEROSORGAILUAK JARTZEAK INGURUMENEAN ERAGITEN DITUEN KALTEAK HANDIAK DIRELAKO, BESTE TOKIETAN JARTZEA POSIBLE DELA AZPIMARRATU DUTE.

t. edurne begiristain

a. edorta sanz & mendiak aske

Mendiak Aske-ren borrokak eman ditu bere fruituak, irailaren hasieran Europako Parlamentuak arrazoia eman baitzion, eta ondorioz, Legebiltzarraren erabakiz, geldituta baitaude aurreikusita zeuden egitasmoak. Energia eolikoari buruz mintzatu gara Koldo Ortiz de Ginea, Mendiak Aske plataformako kidearekin.

Zer dela eta sortu zenuten Mendiak Aske taldea?

Erriberagoitian sortu zen plataforma. Inguruan ditugun Arkamo eta Canto Blanco mendietan haize errotak jarri nahi zituztela-eta, jendea biltzen hasi zen. Tokian tokiko plataforma izanagatik ere, guk hasieratik oso garbi geneukan Euskal Herriko mendietan ez genuela aerosorgailurik nahi. Hala, taldea Araba osorako ez ezik, Euskal Herri osorako ere zabaldu genuen. Gure politika da mendietan parke eolikorik ez dela egin behar. Hori da gure sorrerako ideia, eta hori da gure jomuga ere. Gure politika bakarra hori da, eta gure inguruan biltzen den jendea horrekin ados dago.

Energia eolikoa bai, baina ez horrela leloarekin definitzen duzue zuen jarduna. Mendieta ez bada, non eta nola jarri beharko lirateke haize errotak?

Gaur egun nahiko teknologia dago eraldatutako tokietan energia eolikoa jartzeko. 2002an energia eolikoaren Lurralde Sektore Plana onartu zenean, ez zegoen teknologia nahikorik, eta aitzakia hori baliatuta mendietara jo zuten. Gaur egun posible da beste tokietan jartzea, industriaguneetan edo eraldatutako tokietan. Guztiz ados gaude energia eolikoarekin, baina uste dugu ezin dela edozein tokitan ezarri. Haize errotak energia kontsumitzen den tokietatik gertu jarritz gero, ez litzateke sare elektrikorik egin beharko. Esaterako, Araban industriaguneetan jarri eta bertan kontsumitzeko aukera legoke. Posible da gaur egun beste tokietan jartzea.

Eta, zergatik kokatzen ditu Eusko Jaurlaritzak parke eolikoak mendietan?

Egia da mendietan haize gehiago dagoela, eta mota honetako energia haizearekin ibiltzen dela. Alde positiboa eta negatiboa dauka horrek. Alde positiboa da haize korrante gehiago dagoela mendietan beste





tokietan baino. Baina, lehen esan bezala, beste tokietan kokatzea ere bada posible. Zergatik mendietan orduan? Haize gehiago dagoelako eta kilowatio bakoitzarekin ateratzen duten dirua askoz gehiago delako. Kontuan hartu behar da energia eolikoa diru publikoarekin subentzionatuta dagoela eta diru hori enpresa pribatuen eskuetara joaten dela.

Joan den urtean Bruselara jo zenuten Eusko Jaurlaritzak aurreikusita zituen parke eolikoak salatzen. Eta Europak arrazoi eman dizue.

Bai. Europan Natura 2000 Sarea dago, eta horren barruan Arabako hiru parke sartuta daude: Arkamo, Alda eta Iturrieta. Hirurak bete-betean sartuta daude beraiek babesten duten gune batean. Horretaz gain, guk salatzen genuena zen ez direla kontuan hartzen Araban dauden parke txiki asko energia eolikoaren Lurralde Sektore Plan horretan. Alegia, eskatu genuen Lurralde Sektore Plan berri bat egitea, eta bertan kontuan hartzea indarrean dagoen araudi guztia eta baita parke txikiak ere. Bi salaketa horiek aintzat hartu zituen Europako Parlamentuko Eskarien Batzordeak. Hasiera batean tramitera onartu zituen eta gero babesa eman zien. Ez da ohikoa halakorik gertatzea, eta horrek esan nahi du arrazoi handia geneukala eta daukagula.

“**kontuan hartu behar da energia eolikoa diru publikoarekin subentzionatuta dagoela eta diru hori enpresa pribatuen eskuetara joaten dela**

Europako erabakiaren ostean Eusko Legebiltzarrarena etorri zen...

Bai, aurtengo ekainaren 18an Eusko

Legebiltzarrak bertan behera utzi zuen 2002an onartutako Lurralde Sektore Plana eta berri bat egitea adostu zuen, eta bertan guk Europako Parlamentura eramandako eskariak sartzea onartu egin zuen Legebiltzarrak, aho batez. Eta orain horren zain gaude, Lurralde Sektore Plan berria egin behar dute, araudi berriak sartu behar dituzte... Egia da Europako Parlamentuak hartutako erabakia ez dela betebeharrekoa, beraiek ezin dute ezer inposatu, baina kontuan hartzekoa da. Arabako %60 babestuta dago beraiek egindako legeekin, orduan, zer dela eta jarri nahi dituzte parke eolikoak eurek babestutako guneetan? Zer-nolako presioak eta interesak daude horren atzetik? Bada, interes ekonomikoak soil-soilik. Gezur hutsa da ingurumenaren aldeko neurriak martxan jarri nahi dituztela, bakar-bakarrik helburu ekonomikoak dituzte.

“**bi salaketa horiek aintzat hartu zituen europako parlamentuko eskarien batzordeak. hasiera batean tramitera onartu zituen eta gero babesa eman zien. ez da ohikoa halakorik gertatzea, eta horrek esan nahi du arrazoi handia geneukala eta daukagula**

Badirudi Araban egin nahi dituztela proiektu gehienak, egun hamalau egitasmo daude eta. Beste herrialdeetan baino mehatxu handiagoa dago hemen?

Administrazioak uste zuen Araban oso erraza izango zuela parke eolikoak jartzea, eta hala zirudien, kontzejuei dirutza izugarria eskaini zirelako: aerosorgailu bakoitzeko 7.000 euro baino gehiago. Herri txikiak dira eta hainbeste diru eskainita, parke eolikoak egiteko erraza izango zutela pen-

tsatu zuten. Baina gutxien espero zuten tokietan proiektu horiei ezetza nagusitu da, eta, gainera, egiazko energia berriztagarri eta berdearen aldeko apustu garbia egin da. Beraiek dirua nahi dute bakarrik, eta guk natura babestu nahi dugu. Uste zuten Araban dena irabazita zegoela, baina hori guztia desmontatu egin dugu. Gure ibilbidean mugarri asko jarri ditugu: Arabako Biltzar Nagusiek bi aldiz eskatu dute Lurralde Sektore Plan berria egitea. Udalek eta kontzejuek ere galdegin dute... Araban beraiek espero ez zuten mugimendua sortu da.

Uste duzu gizartean eztabaida nahikoa sortu dela energia eolikoaren egitasmoen inguruan?

Gizarte eztabaida eskatzen dugu, eta Eusko Legebiltzarrak ekainaren 18an onartutako legez besteko proposamenak ere eskatu zuen gizartearen adostasuna behar dela planak egiteko. Horrekin batera, guk garbi daukagu herri mugimenduari esker beraien egitasmoak bertan behera geratu direla oraingoz. Guk jendearen iritzia eraldatu dugu hamaika ekintzaren bitartez. Admnrastrazioak, alderdiek, Iberdrolak berak, eta beste hainbatek saldu nahi zuten imaginario faltsu horri guk beste buelta bat eman diogu, eta egiazko aurpegia erakutsi dugu. Gizarteak ulertu egin du hori, eta horri esker atera da beste guztia. Gizarteak ulertu egin du gure mezua, eta administrazioari bizkarra eman dio.

Herri mugimendua aipatu duzu, baina energia eolikoaren egungo ereduaren aurka talde bat baino gehiago ari zarete lanean Euskal Herrian. Ez al zaude te sakabanatuegi?

Uste dut Araban herri mugimendu bakarra dagoela argi esaten duena: Energia eolikoari bai, baina ez horrela. Herri mugimendu

horri esker buelta eman diogu plan osoari, eta herri mugimendu horretan jende asko dago. Herriaren nahia errespetatu egin behar da, eta borrokatu nahi duenak toki bat dauka herri mugimendu horretan. Araba zentral eolikoekin bete nahi zituzten, eta borrokari esker orain denak geldirik daude. Politikariek ongi begiratu behar dute zer egin behar duten, horrela jarraituz gero, jendearen nahiaren aurka joango direlako.

“

zer-nolako presioak eta interesak daude horren atzetik? bada, interes ekonomikoak soil-soilik. gezur hutsa da ingurumenaren aldeko neurriak martxan jarri nahi dituztela, bakar-bakarrik helburu ekonomikoak dituzte

Administrazioak egiten dituen Ingurumen eraginari buruzko azterketi zein sinesgarritasun ematen diezu?

Enpresa pribatu zehatz batzuek egiten dituzte azterketa horiek, eta noski, halako




enpresa batek egiten badu azterketa bat, beraiek nahi duten emaitza aterako da. Hemen garbi dagoena da jendearen nahia zein den, eta hori errespetatu behar da. Europatik behin eta berriz esaten digute ezin dugula metro bat gehiago ere galdu ekosisteman eta bioaniztasunean. Nahikoa triskantzata egin dira honezkerok, eta klima aldaketa da galera honen sintoma bat. Jendeak argi eta garbi dauka bide horretatik ezin dugula jarraitu. Hortaz, berdin digu zer emaitza ateratzen den ingurumen azterketa horietatik, gu beste bide batetik goazelako, natura babesteko beraiek egin-

dako legedia errespetatzearen bidetik. Uste dugu oso inportantea dela mendiak Euskal Herrian duen esanahia. Guk argi daukagu mendiak gure nortasunaren parte handia direla, eta mendiak galduz gero gure izaera eta nortasuna ere galduko direla. Hori ezin dugu onartu inondik inora.

Itxaropentsu zaudete zuen borrokariekin?

Guk ez dugu inorengandik gauza handirik espero, baina konfiantza dugu guk egiten dugun borrokan, eta badakigu alde horretatik bakarrik lortuko dugula zerbeit ●



Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

eguneko
menua

Euskeraz Arabo BAI

www.euskoalkartasuna.org c/ san prudencio 3 gasteiz-erdialdea

azkarprint
Imprenta / Inprimategia

Landazuri, 7 - 945 23 3001

GASTEIZ

• INPRIMATEGIA •

DIBUtec

Papertegi teknikoa

Landazuri, 7 - 945 13 06 07

Eramun
Argazki - Estudio

Heradio Fournier, 23
(laborategia) 945 13 71 02

Askatasun kalea, 5
945 26 19 91

LA RIOJANA
on egin!!! **jatetxea**

bokatak,
pintxoak, kazuelatxoak

Aiztogile kalea (Kutxi), 33
tfnoa. 945 25 02 39

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Araba
Jiraldorik

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza **GASTEIZ**

El Clarete
jatetxea

unai eta patxi fdz. de retana

zerkabarren kalea, 18
gasteiz 945 263 874

EGUR

- Zurezko teilatuak
- Berrikuntzak

Padurea kalea, 12, 16 Pab.
Goian Industrialdea
TI/Fxa: 945 465 921
TI. 627 417 747
info@egur.es
www.egur.es
01171 Legutiano (Araba)

GORETTI
ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (Korre), 14
(San Migeleko pasabidea)
TI: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ

ARANBIZKARRA

ZURE AUTOESKOLA!

Valladolid kalea, 16
Tfnoa. 945 28 28 39
01002 GASTEIZ

Iturrieta
Sagardotegia

OSTIRAGETIK IGANDE
EGUERRIRA ARTE IREKITA.
GAINONTZEKO EGUNAK enkarguz.

bertako sagardoa

- sagar zukua
- babajana (bereztasuna)

ITURRIETA BASERRIA - ARAMAIO (ARABA) TI.: 945 445 385 - 685721593

bai
euskarari

zerbitzua euskaraz

dalvez

ALGARA DANTZA TALDEA

IÑIGO MANUEL, algara dantza taldeko zuzendaria:

“Saririk hoberena ikuslearen txalo zaparrada da”

ALGARA DANTZA TALDEA 2000. URTEKO APIRILEAN JAIO ZEN. INDARRA DANTZA TALDETIK ETORRITAKO HAINBAT GAZTEK SORTU ZUTEN ETA DAQOENEKO 70 BAT DANTZARIK OSATZEN DUTE, ERRITMOAREN MESEDETAN TXISTULARI, ÇAITERO, TRIKITILARI ETA ALBOKARIAK LAÇUN DITUZTELARIK. ÇUZTIEK BERRIKUNTZAREN ALDEKO APUSTU ARGIA EQIN DUTE, BATA BESTEARENGATIK BANANDURIK DAUDEN BI MUNDUREN BATURA ERDIETSIZ, MODERNOA ETA TRADIZIONALA. HORRELA, MUNDUKO DANTZA KORRONTE, ARTE ETA MUSIKA DESBERDINAK UZTARTUZ KOREOÇRAFIA BERRIAK SORTU DITUZTE, DANTZA TRADIZIONALAK AHAZTU ÇABE.





t. ane pedruzo
a. edorta sanz & algara

Harrotasunez begiratzen dute atzera folkloreaken zabalkundea bermatzearren gogoz egindako lana gogoratuz. Etorkizunari dagokionez, 2010 urtea noiz helduko irrikitan daude, izan ere, 10 urte beteko dituzte orduan. Dantzarekiko zaleztasuna eta xera publiko zabalari transmititzea dute erronka.

Iñigo Manuel Algarako zuzendariarekin Eskola kaleko egoitzan trebatzen den dantzari taldearen nondik norakoak ezagutu ditu GEUK.

Hamar urte bete behar dituzuela, zein izan da Algararen bilakaera sortu zenetik gaur egunera arte?



Talde xumea ginela hasi zen gure ametsa eta denborarekin izugarri hazi da Algara. Hamar urtetan, kultura desberdinak iker-tu, koreografia berriak sortu eta dantza moderno eta tradizionalak txertatu ditugu gizartean.

Nola ospatuko duzue?

Gauza asko egin nahi ditugu eta horretarako erakundeen laguntza beharko dugu, ideia guztiak bertan behera gelditu ez daitezten.

Lehenik eta behin, Algarak 10 urte hauetan egindako ikuskizunen argazkirik adierazgarrienak bilduko dituen egutegi bat prestatzeko asmoa dugu. Gainera, salmentan jarriko diren kamiseta batzuk ere diseinatzen ari gara.

2008ko Prudentzio Deuneko erretretan 'Pausoz pauso iraganetik etorkizunera' izeneko ikuskizuna eskaini zenuten, esaldiak zuen filosofia borobiltzen duela esango zenuke?

Bai. Algaran tipi-tapa helburu desberdinak lortzen goaz, gauza berrien bila gure folkloreaken identitatea galdu gabe.

Errepertorio tradizionalaz gain koreografia berriak ere dantzatzen dituzue, zertan zabilzate orain lanean?

Beti daude gauzak egiteke. Ikasketa eta hobekuntza prozesua ez da sekula amaitzen. Herrialde desberdinetan dantza tra-

dizionalak eta berrikuntzak erakusten jarraituko dugula argi dugu.

Euskal dantzetan aurrera egiteko berritza ezinbestekoa al da?

Hori bakoitzak erabaki behar du. Jendeari ideia berriak ikustea gustatzen zaio... Algaran betiko dantzak irakasten ditugu, aldi berean gauza berriak eginez.

Erabiltzen dituzuen janzki asko ez dira euskal dantzetan ikustera ohituak gaudenak, nondik dator horiek sortzeko inspirazioa?

Bestelako kulturez eta irudimenaz baliatzen gara. Jostunek gainera ideia anitz izaten dute eta horrek piloa laguntzen digu.

Baliteke inork tradizioaren aurka egi-ten duzuela pentsatzea, zer esango zenioke?

Horretarako daude koloreak, ezta? Oso zaila da egindako guztia pertsona oren gustukoa izatea... Horregatik zu zeu gustura egotea da garrantzitsuena.

Atzerriraino eraman dituzue euskal dantzak, Turkia edo Hungaria kasu, zer-nolako harrera izaten dute?

Benetan ona! Gehiengoak asko estimatzen du gure dantzen aniztasuna. Hungarian esaterako, herrialde desberdinetako dantzarekin bildu ostean, denek,



misoagatik saritu zintuzteten, hunkiturik?

Izugari! Guztiz hunkitu gintuen, izan ere, hamar urte dira omenaldian dantzatzen dugunetik. Guretzat urteko agerraldirik garrantzitsuenetarikoa da, lagun arteko giro euskaldun ezin hobea sortzen baita. Dena den, eta zalantzarik gabe, niretzat saririk hobereana ikuslearen txalo zaparrada da.

Zer-nolakoa da arabar dantzarien harrobia?

Euskal Herrian oro har folklorea ez da unerik gozoena bizitzen ari...

Bultzada bat ematearren, nola animatuko zenituzke GEUko irakurleak dantzetan hastera?

Inoiz ez da berandu dantzan ikasteko eta aukera probetxatu nahiko nuke irakurtzen dagoena dantzatzen hastera animatzeko. Kirola egiteaz gain, euskal kulturaren arlo bat ikasteko aukera bikaina baita! ●

Uztai, Txiki edo Souletinos dantzen ikusgarritasuna nabarmentzean egin zuten bat.

Gasteizen bertan badira dantza talde anitz, batera aritzen al zarete inoiz? Elkarren arteko harremana ona da, ala futbolean bezala "pikeak" al daude?

Noizbehinka egoten gara bai. Normalean Arabako Dantzarien Biltzarrak antolatuz

ohi dituen ekimenetan biltzen gara eta denetarik dago, futbolean bezala. Dena den, garrantzitsuena bakoitzak bere lana eta helburuak lortzea da, denon artean euskal folklorea babestuz eta zabalduz.

Aurtengo Andre Maria Zuriaren jaietako ikurrinaren omenaldian, Blusa eta Nesken Batzordeak, euskal dantzak berreskuratzeagatik eta euskal kultura bizirik iraunarazteko konpro-

lñigo manuel, gertutik

33 urteko komertzial honek zazpitan irabazi du Arabako auresku txapelketa. Zainetan darama dantza, sentimendurik sakonena ere azaltzeko bide duelarik. Euskaldun izateaz harro dago lñigo eta dantza horren erakusleihu duela dio.

Zer nahiago plaza ala eszenatokia? *Biak, baikotza bere momentuan eta gauza desberdinak egiteko.*

Dantzaria jaiola ala egiten da? *Jaiotzen da, pixkanaka dantzari forma hartzen doalarik.*

Zure dantzari gustukoena? *Arabako Gasteizko Zortzikoa, Bizkaiko Kaixarranka, Uztai-Txiki Gipuzkoatik, Nafarroatik Otsagabia eta Iparraldetik Souletinos.*


Zein dantzari miresten duzu? *Euskal folklorea harrotasunez mundu osoan zehar zabaltzen duten dantzari guztiak.*

Gasteizen zein da txokorik onena dantzatzeko? *Guztiak dira onak. Dantzariok edozein lekutan egin behar dugu dantza, hain zuzen ere, dantzariak garelako.*



artetxokoa

HUMBERTO GUTIERREZ, IMITATZAILE & GIDOILARIA:



**“Zerbait proposatzen
didatenean ez naiz ni
izango ezetz esaten
dudana”**

Ondo ezagutzen ditu komunikabideak baina ez da kazetaria; padelean aritzen da baina ez da aberaskumea; Arte Ederrak ikasi zituen baina ez du margotzeko denborarik; Elvis-en imitatzaile lehiaketa batean parte hartu zuen baina ez da frikia... Humberto Gutierrezek konturatu gabe lortu du gehienok amesten duguna: gustura egiten dugun horretaz bizitzea. Txikitan, eskola garaian, hasi zen imitazioak egiten eta egun hori du lanbide.

t. naroa cuesta a. edorta sanz

Polifazetikoa. Adjektibo bakar batekin azal daiteke Humberto Gutierrezen (Malaga, 1973) lanbidearen ardatza. Pertsonaia desberdinen ahotsa antzeratzeko izugarriko trebetasuna du eta horretan dihardu azkeneko hamarkada luzean. Irratian, Radio Vitorian, hasi zen lanean, "kasualitatez", haren esanetan. Lagun baten saioan imitazioak egiten ezagutu zuen komunikabideen mundua, kolaboratzaile gisa.

Ostean, K2000 ekoizpen etxearekin harremanetan jarri zen, berriz ere, lagunak direla medio. 'Lo que faltaba', 'Buen rollito', 'Pika-pika', 'La gran evasión'... saio hauetan guztietan aritu zen imitatzailerik. Gero, 'Algo pasa con Lopez' programan karakterizatuta agertzen hasi zen, hau da, ahotsa ez ezik bere irudia ere telebistan agertzen zen. Esperientzia errepikatu zuen 'Pásalo' saioan; honakoan, publikoa balitz bezala parte hartu eta aurkezleak zirikatatu ohi zituen.

'Vaya semanita' saio arrakastatsua jaio zen orduan, Oskar Terolen proiektua. Hasieratik sartu zen egitasmo berritzaile honetan eta Terolen ekipoarekin egin zuen salto Madrilerara. "Saioak ez zuen porrot egin, baina ez zen espero zena lortu", diosku Gutierrezek. Hamahiru emanaldiren ostean 'Made in china' TVE-ko parrillatik kendu zuten. Beste lagun baten deia jaso zuen gero, 'Vaya semanita'-n gidoilari lanetan aritzeko eskaera egin eta bertan hasi zen. "Ez dut uste berrogeita hamar urterekin imitazioak egiten jarrai dezakedanik, ordurako jendea asper-asper eginda egongo da", diosku. Kamera atzeko lana gustuko bazuen ere, imitazioak faltan sentitzen zituen. Hortaz, bietan aritzen da gaur egun Humberto Gutierrez. "Lehiakide gutxi izan ditut hemen, gutxi gara imitazioan gabiltzanak", aitortzen du.

Azken urteotan proiektu ugari aritu bada ere, ez du irratia alde batera utzi. Udako saioa izateko jaioa zen 'El vermoucito' gidatzen hasi zenetik bi urte igaro dira jada. Besteak beste, Gasteizko Udalean gertatukoaren birpasa-harpalariarena egiten du Gutierrezek.

Beraz, imitatzailerik eta gidoilari delako esan daiteke. Lagun onak izan ditu bidean, proiektu ausartienetan ere berritzeko aukera eskaini diotenak. "Zerbait proposatzen didatenean ez naiz ni izango ezetz esaten dudana", hauxe da bere leloa.

Zenbat pertsonaia desberdin imitatzeko gai zara?

Ez ditut denak zenbatuak, baina noizbait egin izan dut zerrendaren bat. Orduan, hirurogei baino gehiago atera zitzaizkidan.

Zein da hobekien ateratzen zaizun pertsonaia? Eta okerren?

Boris Izagirre esker onekoa da. Izan ere, beste imitatzailerik batek aurretik landu duen pertsonaia bat antzeratzea errazagoa suertatzen da. Beste inork imitatzen ez dituen pertsonaiekin saiatzea izan ohi da zailena eta, era berean, politena. Horregatik dut gustuko Bertin Osborne, beste inork egiten ez duelako. Emakumeekin aldiz, zailtasun asko izaten ditut, ez naiz ausartzen.

Inor kexaka etorri al zaizu imitatzegatik?

Juanito Oiarzabalek ez zuen ondo hartu hasieran, baina telebistan bere pertsonaia egiten hasi nintzenean iritziz aldatu zen. Okerrena Jordi Cruyff-ekin gertatu zitzaidan, Deportivo Alavesen jokatzen



zuenean. Ez zitzaion ondo iruditzen irratian aita eta bera imitatzea eta Radio Vitoriano kirol kazetariren galderak erantzungo ez zituela adierazi zuen. Inoiz ez zait gustatu zabarra izatea, eta horregatik, ez nuen haren jarrera ulertu.

Zu imitatzeko gustatuko litzaizuke?

Koadrilako baten batek parodiatzen nauenean kristoren grazia ematen dit.

Telebistan eta irratian aritzeaz gain bakarrizketalari moduan hasi zara, ezta?

Bai, Gasteizko jailetako 'Umore txokoan' aurten estreinatu naiz. Aurretik hainbat galatan aurkezle lanetan jardun dut, hala ere, publikoak aurrean ikusteak zirrara ematen dit. Behin bakarrik arituz naiz, baina arratsalde horretan erditzearen pareko sentsazioa bizi nuela esango nuke.

Lagunak eta senideak imitatzen dituzu?

Normalean ez. Gero eta hurbilagoa izan pertsonaia orduan eta zailagoa iruditzen zait imitatzeko ●



EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ HITZ EGIN ETA JOLAS... BAITA MIRANDA EBROKON ERE!

EUSKARAK MUGAK GAINDITZEN DITU, EUSKAL KOMUNITATEA EUSKAL HERRIA BAINO ASKOZ HARATAGO DOALARIK. EGUNGO ERREALITATEAK EUSKARA MUNDUKO HERRIALDE DESBERDIN ASKOTAN IRAKATSI ETA HITZ EGITEN DELA AGERTZEN DU ETA EZ DUGU ZERTAN POLONIARANTZ BEGIRATU ADIBIDE BAT AURKITZEKO. IZAN ERE, BARTZELONA, MADRIL ETA MIRANDA EBROKO HIZKUNTZA ESKOLETAN EUSKARA IKASTEKO AUKERA DAGO. AZKENENGOA BARRUTIK EZAGUTU AHAL IZAN DU GEUK, ATEAK IREKI NAHI?

t. ane pedruzo a. albar ravelli

Jendeak uste duenaren kontra Miranda Ebroko Hizkuntza Eskolan ingelesaren atzetik euskara da eskaera handiena duen hizkuntza, frantsesa edo alemanaren aurretik. Arrakastak badu bere arrazoia, Albar Ravelli irakasleak azaltzen duenez, Araba hegoaldeko herriek Miranda hartzen baitute hiriburutzat, gertutasuna dela eta asko bertara doazelarik ikastera. Gaineratzen duenez, garrantzitsua da oso Hizkuntza Eskolaren eskaintza, Añana eta inguruetan zailagoa baita euskarari heltzea.

Eskaria handia zen Miranda Ebroko Udalak euskarazko irakaskuntza publikoa bultzatzen hasi zenean. Izugarri kostatu omen zitzairen udal agintariei Gaztela Leoiko junta konbentzitzea, baina azkenean lortu eta eurek beraiek topatu zituzten irakasleak duela bost urte. Horrela hain zuzen ere, hasi zen Albar Mirandan lanean. "Irakasleak behar zirela zioen iragarki bat irakurri nuen egunkarian, curriculum bidali eta hara nondik deitzen didaten euskara irakasle lanetan hasteko!", gogoratzen du. Euskara saila martxan jarri zenean Gaztela Leoiko Hizkuntza Eskolen biltzarraz ere oroitu da. "Presidentea euskara irakasleoi bostekoa ematera hurbildu zitzaigun eta guzti, exotikoak omen ginen!".

Hutsetik hasi behar izan zuten. Bi irakasle zeuden orduan, Albar eta Jon eta eurek hartu zuten euskara saila guztiz antolatzearen ardua. Yolanda -hirugarren irakaslea- iaz gehitu zitzairen. "Ni hasi nintzeneko dena osatuta zegoen, euskara departamentua ondo antolatu-

ta, material nahikoa klasea emateko eta aurretiko esperientzia dagoneko finkatuta", diosku.

Gaur gaurkoz 91 ikasle ari dira euskarari trebatzen. Hiru ziklotan -oinarrizkoa, tartekoa eta goi mailakoa- banatutako sei maila egiteko aukera dute, bigarren hizkuntza-eskakizuna lortzera hel daitezkeelarik. Ez dago azkeneko maila (C.I) egiteko aukerarik. Hori dela eta, Gorka Ruiz de Azuak, bi urtez Mirandan egon ondoren, Gasteizen bukatu beharko ditu bere ikasketak bere atsekaberako. "Zoritxarrez Mirandan ez dute eskaintzen azken kurtso hau eta horregatik Mirandako Hizkuntza Eskolara astero joateari utzi diot", dio.

Gorka Gasteizko eskolan tokirik izan ez eta Mirandara joan behar izan zuenatariko bat da. Berea ohiko kasua da. Halere, Albarrek





“
**zenbaitetan ikasleek
 euskaldunak lotsa-
 raztea lortzen dute,
 askok euren buruari
 galdetzen baitiote,
 nola liteke burgoseko
 batek nik baino eus-
 kara hobea izatea?**

zerrendatu duenez, euskara ikasten hasten diren ikasle-
 en arrazoiak oso bestelakoak dira, “batzuek
 Gasteizen lan egiten dutelako, bestek zaletasuna edo
 euskal lagunak direla eta euskara gertuko hizkuntza
 sentitzen dutelako, hainbatek jakin-mina dutelako eta
 gutxiengoa mirandar euskaldunak sentitzen direlako”.
 Sergio Revuelta gutxiengo horretan sartzen da.
 “Euskara maitatzen dugunon esku dago bere erabile-
 ra indartzea”, aipatu du mirandar peto honek. “Oro
 har ikasle gehienek motibazio handia azaltzen dute
 eta hau izan zen gehien harritu ninduen”, aitortu du
 Yolandak.

Denborarekin gainera helburuak alda daitezkeela agertu du Marta
 Saizek 5. mailako ikasleak, “hasieran lanerako beharrezkoa nuelako
 hasi nintzen eskolan, baina denboraren poderioz konturatu naiz eus-
 kara ikastea ez dela soilik hizkuntza jakitea, baizik eta Euskal Herriko
 kultura eta bizimodua ezagutzeko bide ere”.

Kasu bitxiak ere izan badira, esaterako *Athletic* zalea zenez euska-
 ra azkar ikasiko zuela pentsatzen zuen mutil batena. Dena den,
 Albarrek argi utzi duenez, ikasle guztiek ez dute zertan euskaldun
 sentitu euskara ikasi nahi izateko. “Polita da euskaldun sentitzen ez
 diren euskal hiztunak ere lor daitezkeela ikustea”, hausnartu du.

Irakasle zein ikasleek eskolako giro ona azpimarratzen dute.
 Ikasle arteko harremanak hain dira bikainak, non euren mintzalagun
 partikularra egiten duten. “Adiskideekin lau urte daramatzat ikasten,
 eta esan genezake lagunak garela, horregatik astero elkartzen gara
 pote batzuk hartzeko eta euskaraz bizitzeko!”, kontatu digu Martak.
 “Gasteizera itzultzerakoan edota Mirandara joateko momentuan prak-
 tikan ipintzen genuen astero ikasitakoa”, jarraitu du Gorkak. Sergiok

bere ikasketa prozesuan lagun anitz egin ondoren,
 eurekin trago batzuk hartzen zein Internet bidez eus-
 karaz mintzatzen dela gaineratu du.



“Gu aurrean ez egon arren euskaraz egiten dute”,
 baieztatu du Albarrek pozik, nahiz eta jakin badakien
 Miranda euskalduntzetik urrun daudela. Yolandaren
 aburuz, klasetik kalera jauzi handia dago. “Mirandako
 zailtasunik handiena ingurunea erabat erdalduna dela
 da, eta klasetik kanpo zaila dute euskaraz egitea”.

Horregatik, euskara eskolatik at bultzatzeko
 asmoz, urtero-urtero ekintza desberdinak antolatu
 ohi dituzte, hala nola, abenduaren 3an euskararen

eguna ospatu, mendi irteerak, liburuaren egunean euskal idazleen
 bisita jaso... “Ikasleei izugarri gustatzen zaien sagardotegi irteera bat
 ere ez da falta, mozkortu behar dituzu lotsarik gabe hitz egiten has
 daitezen!”, kontatu digu Albarrek barrezka, aurten Askartzara joango
 direla aurreratuz. Aurreko guztia gutxi balitz, Euskal Herriko herri bat
 ezagutzeko asteburuko txangoa ere prestatzen dute. “Zenbaitetan
 ikasleek euskaldunak lotsaraztea lortzen dute, askok euren buruari gal-
 detzen baitiote, nola liteke Burgoseko batek nik baino euskara hobea
 izatea?”, azaldu du.

Etorkizunera begira asko dago egiteke. Yolandak ikasle kopurua
 mantendu edo igotzea, gehiago treba daitezen lortzea eta beraien
 arteko harremanak indartzea du helburu. Albarrek bitartean,
 Mirandako hizkuntza-gaitasun agiria gainontzeko euskal titulazioen
 baliokidea izatea premiazkoa ikusten du. Gainera, euskara irakasteko
 modu internazionalagoa topatzearen aldeko apustua egiten du, azal-
 tzen duenez, euskal komunitatea Euskal Herria baino askoz zabalagoa
 baita, hona hemen frogala! ●

AGURAINGO ELITEAK EUSKARAZ?



1576ko aguraingo eskritua

t. / a. kike fdz. de pinedo

Erdi Aroan gure hiria bisitatu zuten bidaiarien artean bi italiarrek Andrea Navagierok 1525ean, eta Giovanni Batista Venturinak 1572an, hizkuntza egoeraz aipamen interesgarriak utzi zituzten idatzita euren bidaia liburuetan. Aurrenekoak honako hau: "...Gasteizen Gaztelaniaz egiten da, baina ondo ulertzen dute Euskara, herririk gehienetan 'Biscaino' egiten dute". Bigarrenak, berriz: "...hiri horretan 'Biscaino' Bizkaiera edo Bascongado, haiek dioten bezala, mintzatzen da,

oso hizkuntza zaila ikasteko, nobleek Gaztelaniaz garbi hitz egiten badute ere". Aipu hauek herri xehearen euskalduntasuna, eta goi mailakoen elebitasuna iradokitzen dute. Baina nolako elebitasunaz ari gara? Gaztelaniaz egiten zuten eta euskaraz ulertu? Herritar arruntekin euskaraz mintzo ziren? Eta euren familietan? Denbora-makinarik ez dugunez ez daukagu erantzun zehatza. Edozelan ere, garai hartan nobleziak euskarari bizkarra eman eta euskararen gainbeheran murgilduta zegoen ideia nagusitu da adituaren artean. 1562ko Landuchioren hiztegian ere nabarmena da gaztelaniaren eragina, eta diglosia egoeraren isla ere bada.

Azken urteetan, baina, datu berrien argitan, goi mailakoek ari garenean zenbait ñabardura eta zehaztapen egin beharko genituzkeela uste dut. Lazarraga poetaren eskuizkribuak, aurreiritzi bat edo beste bota du pikutara. Bera bezalako landa eremuko noble bat euskaraz mintzatu ez ezik, idaztera urratsa eman izanak zer pentsatua ematen du. Aberatsa eta bizia da, gainera, darabilen euskara, osasuntsu eta indartsu zegoen seinale.

1576ko Aguraingo dokumentu berria

Oraingoan euskararen historia sozialaren puzzlea osatzen lagunduko duen datu berri eta argitara gabekoa dakarkizuegu, txikia bezain interesgarria. Aurreko artikuluan bezala, eskerrak eman behar dizkiot Gervasio di Cesare argentinarri, berak berriki Arabako Artxibo Historiko Probintzian bere urrutiko senidea den Lazarraga familiaren inguruko dokumentazioa arakatzen ari zela jarraian komentatuko dugun agiria topatu baitu.

Agiri honen protagonista **Martin Ochoa de Villanueva** da. Familia honek urte luzetan inksidoreak, eskribauak, alkateak, merkatariak... izan zituen bere baitan. Alegia, Aguraingo eliteko partaide ezagunak. Testua 1576ko martxoaren 23koa da. Bertan Martin de San Roman eskribauak Ernando Ruiz de Luzuriaga alkatearen aurrean eskritura publiko bat irakurtzen du. Honetan Aguraingo auzotarra zen baina garai hartan Valladoliden bizi zen Martin Ochoa de Villanuebak ahalorde bat ematen du. Jarraian Francisca Saez de Legorretaren senarra dela eta beren seme-alabak, Juan eta Mari, adin gutxiakoak direla (20 eta 15/16 urtekoak) esaten zaigu. Bi seme-alabak irakurketan presente



daude eta pasarte batean hau dio eskribauak: “...y dado a entender en lengua bascongada a la dicha Mari Ochoa leydo y por ellos entendido...”. Hau da, semeak gaztelaniaz badaki, baina alabak ez, eta bide batez, eskribaua euskalduna dela gainera daiteke.

Badira beste hainbat agiri Lautada inguruan interpreteen beharraz ohartarazten digutenak, baina protagonistak herritar arruntak izan ohi dira. Kasu honetan, berriz, ez; gaztelaniaz ez dakiena Aguraingo goi mailako familia baten alaba da. Familia eta

protagonistei buruzko zehaztasunak falta bazaizkigu ere (hau ikertzen saiatuko gara beste baterako), ondorio pare bat atera ditzakegu. Bata da, egile batzuek apuntatu duten bezala, gaztelaniaren ezagutza gehiago zaintzen zela gizonezkoen artean, emakumezkoen artean baino. Seguru asko familia hauek semeek ikasketak izan ditzaten bermatzen zutelako. Agurainen bertan omen zegoen gramatika eskolak helburu hori ziurtatuko zuen.

Bigarren ondorioa zera da, Lautadan (eta Arabako beste zenbait eskualdetan) euskara-

ren nagusitasuna orokorra zela; hots, harremanetarako hizkuntza, familia barruan zein kanpoan, euskara izango zela, baita gutxienez nobleziaren parte batena ere. Logikoa bestalde, herritar gehienek euskaraz baino ez zekiten gizartean bizi izanda. Zaila da esaten garai hartako elite haiek zer-nolako atxekimendua zuten euskararekiko. Larreako idazlearen kasuan artzain nobela eta barnekoia poemetan izkiriatzeko adinakoa izan zen, eta ez da gutxi. Oraingo eliteen atxekimenduaz hobe ez hitz egitea, hain da axolagabea! ●

2009/09/18 - 2010/01/03

After the Final Simplification of Ruins

Flávio De Carvalho, Wilson Díaz, Sung Hwan Kim, Maria Lassnig, Erlea Maneros Zabala, Ania Molska, Anu Pennanen, Lotty Rosenfeld, Kateřina Šedá, Apichatpong Weerasethakul.

Komisarioa Cosmin Costinaş

Los sonidos de la muerte

Teresa Margolles

2009/10/23 - 2009/12/08

PERISCOPIO 09 Nómadas

2009/12/18 - 2010/01/31

NEXT ciclo 5. zikloa De la scène: a travers Izaskun Álvarez

montehermoso · fray zacarías martínez 2 · 01001 vitoria-gasteiz · +34 945 161 830 · montehermoso.net



arababixotzian



m. josean morlesin

salvada mendilerroa



historia zutabea

'Gure Izarra' (III, Aguraingo azokaz)

t. erlantz urtasun antzano. historialaria

Aurrekoan genioenez, XIX. mendean 'Gure Izarra' izeneko argitalpen euskaltzalea jaio zen, horren asmoa arabar euskaldunei albisteak euskaraz helaraztea zelarik. Bada, honako informazioa karrikaratu zuten 1888ko udazkenean, Agurain albistea zelarik: "Salbaterra aldean ezda faltaco patata ugari. Anega bat garic baliyo du ogeita emezortzi errial eta patatac sei errial; oyec dira Salbaterraco mercatucu precioac. Salbaterraco mercatua egiten da Marticenean, aste gucietan; nola dan erri hau Vitoriya apartatuta aundiyna eta alde gucietatic erri chikiz inguratu, emen egitendan mercatua importantzia aundiyna da. Feriyo edo mercatu onetara allegatzen diran gauzac dirade patata, gariya, artoa eta beste grano batzuec, gañera gichi edo asco abere edo ganaduac ere izaten dira. Oyetatic printzipalenc dira iriyac, bei-




yac, biorrac eta saldiyac; dembora onetan baita ere cherriyac; oiyec badute estimacioa, baño beste ganaduac erostzalleric estauate mercatu azcotan; berregun bat errial poltzan eramanezkero erociliteke zazpi edo sortzi urteco bior galant bat. Orain urte gichi dala erri onetan egiñda iriñ fabrica bat oso ederra, non garisaltzallec utzilitekean bere granoa noiz nai, plazaco precioan baño errialchobat merkiago". Eta berriz ere diogu, honek ederki erakusten digula, zinez, eta Geu maitagariak ia bakardadean burutzen duen ezinbertzeko lana ezin ahan-

tziz, beti izan dela posiblea, zer arraio, Arabako egunerokotasunaz euskaraz aritzea, irakurle, baita euskara zokoraturik eta desagerraztear zutelarik ere! Areago, hondar urteotako matrikulazio datuak ikusirik, noizko haur eta gazte informazio osoa, osoa diot, osoa, edozein gauza delarik ere euskaraz Aguraingo eskualdean?●

geusex@emaize.com

Argitu nahi duzun sexualitateari buruzko zalantzarik
ala jakin-minik al duzu?

Hilerik hile zure galderak erantzungo dizkizugu. Sexualitatearen inguruko
arlo desberdinei buruz galde diezagukezu.



Anima zaitetz eta bidali hona zure galderak:
geusex@emaize.com

Emaize Sexologia Zentroko profesionalak erantzungo dizute.

emaize sexologia zentroa. gizon eta emakumeentzako arreta
bueno monreal I-behea / 01001 gasteiz / 945265896 / www.emaize.com

**Kaixo, duela urtebete ni baino heldua-
goa den emakume batekin ateratzen
naiz. Ez diot inori kontatu, ziur nire
ingurukoek ez dutela ondo ikusiko. Nik
24 urte ditut eta berak 41. Berarekin
kalera naturaltasunez ateratzea gusta-
tuko litzaidake. Zer egin dezaket?**



Gure gizartean kostatzen egiten zaigu adin ezberdi-
nen arteko harremanak onartzea, are gehiago mutil
gaztea eta emakume helduaren artekoa bada. Aurreiritzi eta estereotipoek min
handia egin dezakete. Horrek, ordea, ez du esan nahi egiten ari zaretena gaizki
dagoenik eta ez duzue zuen istorioa ezkutuan bizi behar.

Pertsonen artean sortu daitekeen maitasuna, desioa, konfiantza, erakargarri-
tasuna... edonon eta edonorekin eman daiteke, ez dago patroiz finkorik eta senti-
mentu horien jabeek erabakiko dute ze harreman mota izan nahi duten. Zuek,
bikote izatearen erabakia duela urtebete hartu zenuten. Erabaki askea da eta
biak helduak zarete.

Baliteke inguruneok ez ulertzea eta denbora behar izatea harreman hau
onartzeko, baina maite zaituzten neurrian, zure zoriontasuna nahi izango dute
eta pertsona honekin ondo zaudela ohartzeko zure erabakia errespetatuko dute.
Agian pazientzia beharko duzue, baina onarpena iritsiko da. Dena den, ez die-
zula esan kontuan izanik, nola jakin ez dutela ulertuko? Ziur baten batek ondo
ikusiko duela eta behar adinako laguntza emango dizue.

Zuek, sortu duzuen harremanak merezi duela uste duzue. Harremana den
bezala azaldu besteen begitara. Berarekin kalera naturaltasunez ateratzea nahi-
ko zenukeela diozu eta naturaltasuna horixe bera da: bakoitza den moduan
agertzea besteen aurrean.

Lortuko duzue! ●

errezeta

diocesan- mendizorroztako ostalaritza eskola

LURRUNETAN EGINDAKO LEGATZ-SOLOMOA, BARAZKI ESKALIBATU ETA TXIRLA-SALTSAREKIN



Osagaiak

- Legatza - Txirlak marinela-erara
- Perrexila - Baratxuria
- Arrain-fumeta - Irina
- Oliba-olioa - Tipula
- Pipermorro gorria - Alberjiniak
- Tomate konfitatua - Baratxuriak

Elaborazio prozesua:

- Legatzari hezurak kendu eta bi solomo atera. Ondoren, anoatan banatu, gero erabili ahal izateko. Hezurrekin arrain-fumeta egin.
- Txirlak ur gazitan garbitu, barruan duten hondarra kentzeko. Hilda daudenak baztertu. Saltsa berdea egiteko, lehenik eta behin, baratxuria sueztitu fin-fin moztuta. Egiten hasten denean, irin-koilarakada bat bota eta ondo desegin. Arreta berezia jarri kolorerik har ez dezan. Arrain-fumetarekin "busti" eta egosten utzi irina gordinik gera ez dadin. Txirlak gehitu eta zabaltzen diren heinean atera. Azalak baztertu, eta mamia xehatu saltsarekin eta txikitutako perrexilarekin, saltsa fin bat lortu arte; perrexil-olio pixka batekin emulsiona dezakegu. Berotan gorde.
- Labeko plaka batean, tipula, piperrak, alberjiniak eta baratxuriak jarri erretzen. Erretakoan, egonean utzi, barazkiak zuritu eta juliana-erara moztu. Guztia gatz, piperbeltz eta oreganoarekin ondu eta gorde.
- Legatz solomo bat moztu, olioarekin ondu, eta 60 °C-tan lurrinetan egosi 4 minutuz. Zerbitzatzeko garaian gatz bota.
- Platera amaitzeko, zopa-plater baten hondoa saltsarekin estali, erdian oinarri eskalibatua jarri, eta haren gainean, legatza. Oliba-olio birjina estra on batekin ondu ●



#SARASOLA



“Diziplina eta segurtasun handiagorekin lan egiten dugu”

Gasteizko Zaldiaran Jatetxe ezagunak turismoaren Q kalitate egiaztagiriarekin lan egiten du aspalditik. Gonzalo Anton jatetxeko gerenteak azaldu digunez, sistema horren bitartez kontrol zorrotzagoak ezarri dituzte produktuetan, eta horrek segurtasun handiagoa ematen die lan egiterakoan.

Zer dela eta egin du Zaldiaran jatetxeak turismo arloari lotutako kalitate sistema eta programen aldeko apustua?

Sistema hori ezinbestekotzat jotzen dugu departamentu guztien funtzionamendua egokia izan dadin. Gure lan egiteko moduan nahiko barneratuta genuen sistema hori, eta ezarri genuenetik, diziplina eta segurtasun handiagorekin lan egiten dugu. Modu horretan, edozein akats berehala atzematen dugu. Esaterako, produkturen bat egoera txarrean sartzen bada, espedientea irekitzen dugu. Ez dakit bezeroak nabaritzen duen, baina gu, enpresa modura, askoz ere seguruago gaude.

Zein abantaila eman dio zuen enpresari kalitate turistikoaren sistema baten ziurtagiria (Kalitate turistikoaren Q-a) izateak?

Abantaila nabarmenena da enpresak modu arrazional batean funtzionatzen duela merkantzia jasotzen den unetik, zerbitzua prestatu eta bezeroari eskaini arte. Sistema ezarri baino lehen ere arlo hori nahiko antolatuta genuen, baina Q kalitatea dugunetik, geure buruak zorrotzagoak izatera behartzen ditugu. Eta, noski, Q sistema ezarrita izateak bezeroari sinesgarritasun handiagoa ematen dio.

Q sistema ezarri zenutenetik, zeintzuk izan dira barne mailan nabaritu dituzuen hobekuntzak? Eta antolaketa, kudeaketa eta azpiegituran?

Egia esan lan gehiago egin behar izaten dugu sistema ezarri genuenetik, bereziki, kontrolak handitu ditugulako. Baina, hala ere, ontzat jotzen dugu.

Eta bezeroek zein hobekuntza nabaritu dituzte?

Uste dut bezeroa dela gutxien nabaritzen duena. Dena den, ni sinetsita nago enpresa serio batek gauzak ongi egin behar dituela, eta atzetik horretara behartzen zaituen arau bat baldin badago, are eta hobeto. Bezeroa ongi zaintzea dago honen guztiaren atzean.

Zer esango zenioke arlo turistiko profesionalari negozioetan Kalitate turistikoaren Q-a ezarri dezan?

Esango nioke inportantea dela Q sistema ezartzea, denok uste baitugu egiten duguna ongi dagoela, baina azterketa egiten dizutenean ohartzen zara badagoela zer hobeto. Ostalaritza hobetzea beti da garrantzitsua, bereziki bizi garen herrian.

Hortaz, gainerako enpresaburuei gomendatuko al zenieke kalitate ziurtagiri batekin lan egin dezaten?

Bai, noski. Jende guztiari aholkatuko nioke Q sistema ezartzeko. Hasiara batean apur bat kostatzen da dena antolatzea, baina behin lortuz gero, nabaritu egiten da; eta langileak berak ere nabaritu egiten du, profesionalagoa sentitzen delako.

Q turistikoaren kalitate prozesuak erraztu al du Zaldiaran jatetxea lehiakorragoa izatea?

Bereziki lehiakorragoak gara enpresan bertan. Lehiakorragoa zara gauzak hobetzea gustuko duzun heinean. Eta hor sartzen da Q kalitatea. Baina beste alor asko daude lehiakorra izateko: merkatuaren egoera ikustea, bezeroa motibatzeke egin beharrekoa azterzea,... Q kalitate ziurtagiriak horretan laguntzen du.

Turismoaren Q kalitate ziurtagiriaren prozesuaren baitan landutako eta ezarritako arloetatik zein izan da, zuen kasuan, garrantzitsuen edo baliagarriena?

Guri Q kalitatea iritsi zaitzaigun horren bila geundelako, eta prozesu horretatik gehien interesatzen zaidana da jatetxean sartzen den merkantzia oro kontrolatu behar dela. Horrek segurtasun handia ematen du. Eta hori funtzeskoa da.

Zein aldaketa sartu dituzu edo sartzeko asmoa duzu zure enpresan kalitatearen kultura bultzatzeko?

Horixe bera, kontrolarena. Produktuaren kontrol zorrotza. Merkantiaren sarreran egiten den kontrola da garrantzitsuen.

Eusko Jaurlaritzak, Basquetour Euskal Turismo Agentziarekin batera, enpresariaren esku beharrezko tresna eta laguntzak jartzen ditu, euren erakundeak lehiakorragoak izan daitezen, era honetan:

- **Praktika onen Programak:** helburua enpresariaren “profesionalizatzea” eta helmuga kontzientzia sortzea da. Euskadik dagoeneko baditu Kalitate Turistikoarekiko Konpromiso Diploma daukaten 274 establezimendu.
- **Kalitate Turistikoaren Q Programa:** bezeroen asmoekiko ajetasun eta betetzea bermatzen duen programa da. Euskadik baditu 267 establezimendu Kalitate Turistikoaren Q-arekin sarrituak.
- **EFQM Bikaintasun Eredu Programa:** erakundeek kalitatearekiko bikaintasun maila batera igotzea proposatzen dien programa da. Euskadik 17 establezimendu parte-hartzaile dauzka eredu horretan.

Kalitate Turistikoaren Q-a: Euskadin, dagoeneko badira 267 establezimendu Kalitate Turistikoaren Q-arekin sarrituak, zeinak zerbitzua, instalazioak, eta enpresa turistikoan kudeaketa ziurtatzen dituen. Bereizgarri honek, sailkapen ofizialek at, bai produktuari bai zerbitzuari lotutako exijentziak, espresuki enpresa turistikoetan ezarritako Kalitate araudi baten baitan biltzen ditu. Funtsean, bezeroen asmoekiko ajetasun eta betetze bermea da.



Bestetik, negozio txikiagoei bereziki zuzendutako programak, exjientzia maila baxuagoekin baina epe luzerako konpromiso batekin, 274 establezimendu hartzen ditu, zeinek Kalitate Turistikoarekiko Konpromiso Diploma daukaten. Bereizgarri honek aitortzen du establezimenduen formakuntza eta kudeaketa arloen hobekuntzarako konpromisoa, kalitate hobekuntzaren planen bitartez. Bere helburu nagusia, bezeroarekiko zerbitzurako hobekuntza jarraitua da.

Jar ezazu Kalitate Turistikoaren Q-a zure establezimenduan!

www.turismoa.euskadi.net

94 607 75 86 - 94 404 74 70

www.euskalit.net





CUADRILLA DE ZUIA
ZUIAKO KOADRILA



MUSEOAK



EUSKAL BUZTINGINTZA
MUSEOA

(OLLERIAS-ELOSU)

Tel.: (+34) 945 45 51 45
Fax: (+34) 945 45 53 33



IRUBIDAUER MUSEO
ETNOGRAFIKOA

(IZARRA)

Tel: 609 49 43 01



EZTI MUSEOA

(MURGIA)

Tel: 945 43 01 67 / 945 43 04 40



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



www.cuadrillazuia.com

bisita gidatuak

Urte osoan zehar.
Gutxienez, 4 lagunentzat.



Informazio gehiago

945 24 38 28

1. Ibilbidea ERROMANIKOA
2. Ibilbidea GAZTELVAK ETA JAUREGIAK
3. Ibilbidea HIRIGUNE HISTORIKOAK



laguntzen dute:



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa